XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1529

23/2016 DEKRETUA, otsailaren 16koa, zeinen bidez ezartzen baitira Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte-irakaskuntzetako Interpretazioaren espezialitatea eta Euskal Autonomia Erkidegorako ikasketa-plana.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 54. artikulutik 58.era bitarteko artikuluetan arautzen ditu goi-mailako arte-irakaskuntzak, non sartzen baitira arte dramatikoko irakaskuntzak. Lege horrek xedatzen duenez, Gobernuari dagokio, autonomia-erkidegoei eta Arte Irakaskuntzetako Kontseilu Gorenari kontsulta egin ondoren, goi-mailako arte-irakaskuntzen ikasketen egitura eta oinarrizko edukia finkatzea.

Agindu hori betetzeko eman zen urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako goi-mailako arte-irakaskuntzen antolaketa finkatzen duena, bai eta maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretua ere, bertan ezarritako goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarrizko edukia arautzen duena.

Azken horrek 7. artikuluan xedatzen duenez, hezkuntza-administrazioek, ikastetxeen proposamena ikusi ondoren, ikasketa-plana finkatuko dute, eta bertan ezarritako gutxienekoak osatuko dituzte 240 kreditu egin arte. Era berean, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, ikasketa-planek zeharkako gaitasunak, gaitasun orokorrak, gaitasun espezifikoak eta espezialitate bakoitzerako zehaztutako lanbide-profilak jaso behar dituzte.

Aipatu maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak xedatu zuen 2010/2011 ikasturtean hasiko zirela pixkanaka ezartzen arte dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzak, honako xedapen hauetan ezarritakoaren arabera: maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarrian, eta ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretuaren 23. artikuluan. Errege Dekretu horren bidez aipatu legeak araututako hezkuntza-sistemaren antolamendu berria aplikatzeko egutegia ezartzen da.

1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritako esparruan, Irisgarritasunaren sustapenaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko dira (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena).

Arte Dramatikoko Goi-mailako Irakaskuntzetako ikasketa-plana, Interpretazioaren espezialitatean, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren proposamena oinarri hartuta taxutzen da; haren arabera, funtsezkoa da ikasleek gaitasunak eskuratzea, ikaskuntza-metodologia berri bat aplikatzea eta ebaluazio-prozedurak egokitzea. Horrenbestez, ikasketaren emaitzak eta ikasleek egindako lan-bolumena neurtzeko unitatea europar kredituak direlakoak (ECTS) izatea proposatzen da, eta ikasleen mugikortasuna bermatuko da, Tituluaren Europar Gehigarria lortzeko aukera emanez.

Nolanahi ere, maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretuak dio hezkuntza-administrazioek, arte dramatikoko goi-mailako irakaskuntzak ematen dituzten zentroen proposamena ikusita, espezialitate bakoitzari dagokion ikasketa-plana ezarriko dutela. Ikasketa-planak maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretuan zehaztutako egiturara eta oinarrizko edukietara egokitzen dira, eta lanbidean aritzeko beharrezkoa den gutxieneko oinarrizko prestakuntza eta berariazkoa jasotzen dituzte.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Euskal Herrian antzerkiari dagokionez dagoen tradizioa eta zenbat antzerki-lan egiten den aintzat hartuta, ikusi du Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza horiek emateko beharra dagoela, eta, beraz, komenigarria dela Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzak ezartzea, hasieran, Interpretazioaren espezialitatean.

Horregatik, bidezkoa da Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzetako Interpretazioaren espezialitateko ikasketa-plana finkatzea eta garatzea, maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Errege Dekretu horrek Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan zehaztutako Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte-irakaskuntzen oinarrizko edukia arautzen du.

Interpretazio-ikasketak pertsonaren garapen integralari lagundu behar diote, alde batera utziz sexuaren araberako estereotipoak eta rolak, bai eta bereizkeria mota oro ere, generoaren eraginik gabeko orientazio akademikoa eta profesionala bermatuz. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan.

Horren guztiaren ondorioz, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzun eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aipatzen dituen arauzko izapideak bete ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak proposatu eta Gobernu Kontseiluak 2016ko otsailaren 16an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-eremua.

Dekretu honek Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan jasotako Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte-irakaskuntzetako Interpretazioaren espezialitatearen ikasketa-plana finkatzen du, eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua arautzen duten oinarri orokorren arabera, goi-mailako arte-irakaskuntzak antolatzen dituen urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuaren arabera eta Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte-irakaskuntzen oinarrizko edukia arautzen duen maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretuaren arabera ezartzen ditu ikasketok.

2. artikulua.– Iraupena, egitura eta hizkuntzaren tratamendua.

1.– Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte-irakaskuntzak, Interpretazioaren espezialitatean, lau ikasturte hartuko ditu. Ikasturte bakoitzak 60 ECTS izango ditu, guztira 240 ECTS kreditu, kredituak transferitzeko europar sistemaren arabera. Kredituak ikasketa-plana osatzen duten ikasgai eta irakasgai guztien artean banatuko dira, banaketa hau izanik:

a) Oinarrizko prestakuntzak gutxienez 18 kreditu izango ditu. Gutxieneko oinarrizko prestakuntza horri dagozkion ikasgaiak, edukiak eta kredituak Arte dramatikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzen oinarrizko edukia arautzen duen maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretuaren II. eranskinean agertzen dira.

b) Prestakuntza espezializatuak gutxienez 114 kreditu izango ditu. Gutxieneko prestakuntza espezializatu horri dagozkion espezialitateko derrigorrezko ikasgaiak, edukiak eta kredituak Arte Dramatikoko Goi Mailako Arte Irakaskuntzen oinarrizko edukia arautzen duen maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretuaren III. eranskinean agertzen dira.

c) Ikasketen amaierako lanak 6 kreditu izango ditu gutxienez, eta ikasketa-planaren azken fasean egingo da. Gutxieneko honi dagozkion edukiak eta kredituak Arte Dramatikoko Goi Mailako Arte Irakaskuntzen oinarrizko edukia arautzen duen maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretuaren III. eranskinean agertzen dira.

2.– Ikastetxeak bere hezkuntza-proiektuan sartuko ditu ikastetxearen nortasun-printzipioak, horiek definitzen dituzten ezaugarriak eta balioak; euren printzipioei jarraituz lortu nahi dituzten hezkuntza-helburuak; ikasleek eskuratu beharreko oinarrizko konpetentziak; hizkuntzaren, curriculumaren eta antolakuntzaren arloko oinarrizko irizpideak, estrategia-lerro nagusiak eta jarduketa-lehentasunak. Testuinguru horretan kokatuko da hizkuntzaren tratamendua, uztailaren 23ko 182/2002 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Dekretu horretan Araubide Bereziko Irakaskuntzetako eta Helduen Hezkuntzako irakasleen lanpostuetako hizkuntza-eskakizunak zehazteko irizpideak eta derrigortasun-datak ezartzen dira.

3. artikulua.– Sarbideak.

1.– Irakaskuntza hauetara sartzeko, beharrezkoa izango da batxiler-titulua edo haren baliokidea, edo Unibertsitatera sartzeko hogeita bost urtetik gorakoentzako proba gainditua izatea.

2.– Eskatutako titulazioa ez duten hemeretzi urtetik gorakoak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak araututako proba bat gainditua zuzenean sartu ahal izango dira. Proba horretan, izangaiek zera egiaztatu beharko dute: alde batetik, behar bezain helduak direla batxilergoaren helburuei dagokienez; bestetik, kasuan kasuko ikasketak emaitza ona lortuz egiteko beharrezko ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak dituztela.

3.– 1. eta 2. idatzi-zatietan jasotako kasuetan, sarrera-proba espezifiko bat gainditu beharko da gainera, hori ere Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak arautua, ikasketa hauek emaitza onak atereaz egiteko beharrezko gaitasunak, ezagutzak eta heldutasuna neurtzeko balioko duena.

4.– Hezkuntza Sailburuordetzako pertsona titularrak sarrera-proba espezifikoa ebaluatzeko epai-mahaia izendatuko du. Epaimahai horrek epaimahaiburu bat eta beste bi kide izango ditu, gutxienez, eta epaimahai bat baino gehiago izendatu ahalko dira, ikaslegaien kopuruagatik beharrezkoa izanez gero.

5.– Sarrera-proba espezifiko hori gainditzeak aukera emango du ikasketa horiek ematen dituen Espainiako estatuko edozein zentrotan sartzeko, betiere zentro horietan plaza librerik baldin badago.

6.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzetara sartzeko sarrera-proba espezifikoen deialdi bat gutxienez egingo du urtero.

4. artikulua.– Ikasketa-plana.

1.– 630/2010 Errege Dekretuan ezarritako ikasgai bakoitzaren ikasketa-plana irakasgai batean edo gehiagotan eratzen da. I. eranskineko ikasketa-planak derrigorrezko eta hautazko irakasgaietako bakoitzari dagozkion kredituak jasotzen ditu, bai eta haiek zein kurtsotan egin beharko diren ere; kredituak, guztira, 240 ECTS dira.

2.– Ikasgai edo irakasgai bakoitzeko kredituak esleitzeko, honako ordu hauek daude sartuta: eskola-orduak –teorikoak zein praktikoak–, ikasketa-orduak, mintegietarako, lanetarako, praktiketarako eta proiektuetarako orduak, eta azterketak eta ebaluazio-probak prestatzeko eta egiteko eskatutakoak.

3.– Hautazko irakasgaiak ikastetxeak aurretik eratutako ibilbideen arabera eskainiko dira. Horiek osatu direla ulertzeko, gutxienez lau irakasgai gainditu beharko dira.

4.– Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzen ikasketa-planeko 240 ECTS kredituen banaketa honako hau izango da:

a) Oinarrizko prestakuntzako ikasgaiak dekretu honen I. eta II. eranskinetan jasota daude. Gai horiek ikasketa-planeko lehen erdian emango dira.

b) Espezialitateko derrigorrezko ikasgaiak dekretu honen I. eta II. eranskinetan jasota daude.

c) Praktikek 22 ECTS kreditu izango dituzte.

d) Ikasketen amaierako lanak 10 ECTS kreditu izango ditu, eta ikasketa-planaren azken fasean egingo da.

5.– Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzetako Interpretazioaren espezialitateko zeharkako gaitasunak dekretu honen III. eranskinean daude zehaztuta.

6.– Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzetako Interpretazioaren espezialitateko gaitasun orokorrak dekretu honen IV. eranskinean daude zehaztuta.

7.– Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzetako Interpretazioaren espezialitaterako zehaztutako gaitasun espezifikoak dekretu honen V. eranskinean daude zehaztuta.

8.– Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzetako Interpretazioaren espezialitaterako zehaztutako lanbide-profilak dekretu honen VI. eranskinean daude zehaztuta.

9.– Kredituak esleitzean eta kreditu bakoitzari dagokion ordu-kopurua kalkulatzean, ikasturte bakoitzean gutxienez 36 astez eta denbora osoz diharduten ikasleak hartuko dira oinarri moduan. Kreditu bakoitzeko ordu-kopurua gutxienez 30 izango da.

10.– Ikastetxeak ezarri eta jakinaraziko du derrigorrezko presentzia-portzentajea, kreditutan, ikasgai bakoitzerako.

5. artikulua.– Ebaluazioa eta kalifikazio-sistema.

1.– Ikasle bakoitzaren ikasketa-prozesuaren ebaluazioak, zeina irakasgaika bereizia izango baita, aintzat hartuko du horietako bakoitzerako definitutako konpetentzien maila eta bereganatze-maila.

2.– Ikasketa Amaierako Lanaren ebaluazioa eta kalifikazioa bakarra izango da, eta hura gainditzeko nahitaezkoa izango da gaindituta izatea dagokion ikasketa-plana osatzen duten irakasgai guztiak.

3.– Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzetako Interpretazioaren espezialitateko irakasgaiak ebaluatzeko irizpideak dekretu honen II. eranskinean daude zehaztuta, eta ikasturtearen hasieran emango dira argitara. Barne hartuko dituzte horretarako zehazten diren parametroen arabera objektibagarriak eta neurgarriak diren adierazleak.

4.– Irakasgai bati dagozkion kredituak lortzeko, horretarako ebaluazio-probak gainditu beharko dira.

5.– Kalifikazio numerikoen bidez adieraziko da ikasleak lortzen duen ikaste-maila, eta bere espediente akademikoan islatuko dira kalifikaziook, ikasturte bakoitzean dagozkien ikasgaiak egin dituzten ikasle guztiekiko kalifikazio horiek duten banaketa-portzentajearekin batera.

6.– Formula hau aplikatuz aterako da ikasle bakoitzaren espediente akademikoaren batezbestekoa: ikasleak lortutako kredituetako bakoitza hari dagokion kalifikazioaz biderkatuko da, kreditu guztiei dagozkien biderkadurak batu egingo dira, eta lortutako emaitza ikasleak guztira lortutako kreditu kopuruaz zatituko da.

7.– Ikasleak ikasketa-planeko irakasgaietako bakoitzean lortutako emaitzak 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskala baten arabera kalifikatuko dira; zenbakizko kalifikazioak dezimal bat izango du, eta dagokion kalifikazio kualitatiboa ere gehitu ahal izango zaio. Eskala hau da:

0 - 4.9: Gutxiegi (G)

5.0 - 6.9: Nahiko (N)

7.0 - 8.9: Oso ongi (OO)

9.0 - 10: Bikain (B)

8.– Ikasleek gehienez ere lau deialdi izango dituzte irakasgai bakoitza gainditzeko, eta gehienez ere bi deialdi ikasketa-amaierako lana gainditzeko.

9.– Ikasketa-planean sartuta ez dauden prestakuntza-jarduerei dagozkien kredituen onarpenaren bidez lortutako kredituak ez dira zenbakiz kalifikatuko eta ez dira kontatuko espediente akademikoaren batez bestekoa egiteko.

10.– «Ohorezko Matrikularen» aipamena 9,0tik gorako kalifikazioa lortu duten ikasleei eman ahal izango zaie. Horien kopurua ezingo da izan ikasturte berean irakasgai batean matrikulatutako ikasleen ehuneko bost baino handiagoa, matrikulatutako ikasleak 20 baino gutxiago izan ezean; kasu horretan, «Ohorezko Matrikula» bakarra eman ahal izango da.

6. artikulua.– Hurrengo mailara igarotzea eta ikastetxean jarraitzea.

1.– Ikasleak ezingo dira egon ikastetxean sei ikasturte baino gehiago.

2.– Arte Dramatikoko ikasketetako bigarren kurtsoko ikasgaietan matrikula egin ahal izateko, lehen kurtsoko 40 ECTS kreditu gutxienez gaindituta izan beharko dira.

3.– Arte Dramatikoko ikasketen hirugarren kurtsoko irakasgaietan matrikulatu ahal izateko, lehenengo kurtsoko irakasgai guztiak, gutxienez, gainditu beharko dira. Arte Dramatikoko ikasketetako laugarren kurtsoko irakasgaietan matrikula egin ahal izateko, bigarren kurtsoko irakasgaiak gutxienez gaindituta izan beharko dira.

4.– Kurtso aurreratuago bateko irakasgaietan matrikulatu ahal izateko, ikasleek aurreko kurtsoko gainditu gabe dituzten irakasgaietan ere matrikulatu behar dira ikasturte akademiko berean.

5.– Ikasturte berean, mailakako edukia duten bi irakasgaitan matrikula egin ahalko da bakarrik ikastetxeak matrikula zabaltzea onartu badu.

6.– Hautazko irakasgairen bat gainditu gabe uzten bada, hurrengo urtean beste hautazko irakasgai bat aukeratu ahalko da, ikastetxeak eskainitakoen artetik; nolanahi ere, hautazko irakasgai horretan erabilitako deialdiak kontabilizatu egingo dira.

7. artikulua.– Graziazko deialdia.

1.– Salbuespenezko edo graziazko deialdia ohiko baliabide bat da, orokortuta dagoena, antolamendu akademiko desberdinetako hainbat mailatan. Haren helburua da deialdi-kopurua malgutzea salbuespenezko egoerak sortzen direnean, ikasten ari diren ikasleen egonaldia ikastetxean ez agortzeko behin betiko.

2.– Egoera berezietan eta behar bezala justifikatutako arrazoiengatik baimendu ahal izango da graziazko deialdia; ikasleak aurrez eskatu beharko du, eta, Goi Mailako Arte Irakaskuntzetan zehar, bi irakasgaitan (salbuespenez, hirutan) baino ezingo du eskatu, deialdi guztiak agortu eta gero, eta irakasgai bakoitzean behin bakarrik.

3.– Eskabidea aurkeztu ahalko da:

a) ordura arte gaindituta diren kredituen % 10 edo gutxiagorako eskatzen bada ezohiko deialdia.

b) kurtso batean ikasleak gainditzeko dituen kredituak kurtso horretako kredituen % 20 baino gutxiago badira.

4.– Irakasgaiaren laugarren deialdiko kalifikazioa, edo, hala badagokio, horren aurkako erreklamazioaren behin betiko ebazpena jakinarazi eta hilabete baino gutxiagoko epean aurkeztuko da graziazko deialdiaren eskabidea. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari zuzenduko zaio eskabidea, eta ikastetxearen idazkaritzan aurkeztuko da.

5.– Eskabidea behar bezala arrazoitua izango da, eta hura egitea justifikatzen duten arrazoiak egiaztatzen dituzten agiriekin batera bidaliko da: gaixotasuna, lanera hastea, seme-alaben zaintza, istripua edo beste batzuk.

6.– Eskabidea ikusita, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ebazpena emango du, ikastetxearen zuzendaritzari kontsulta egin ondoren eta eskatzailearen inguruabar akademikoak eta pertsonalak aintzat hartuta. Aldeko ebazpenak eskabidea egin eta hurrengo bi ikasturtetarako balioko du. Salbuespenezko deialdia eman zaion ikasleak irakasgaiaren matrikula egin beharko du, horretarako ezarritako epeetan. Salbuespenezko deialdia ukatzen bazaio, eskatzaileak gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko du Hezkuntzako sailburuordearen aurrean, ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean.

8. artikulua.– Matrikula eta deialdia deuseztatzea, ikasleak hala eskaturik.

1.– Ikasturtea hasten den urte naturaleko azken irakasteguna baino lehen, ikasturte osoaren matrikula deuseztatzea eskatu ahal izango du ikasleak. Matrikula deuseztatzeak ez dakar berekin prezio publiko moduan ordaindutako zenbatekoak itzultzea, eta, iraunkortasunari begira, ikaslea matrikulatu ez balitz bezala izango da.

2.– Ikasturte osoko matrikula deuseztatzen duen ikasleak ikastetxeko ikasle izaera galduko du, eta, beraz, ondorengo kurtso batean matrikulatu nahi izango balu, haren matrikula ikastetxean dagoen plaza hutsen mende egongo da.

3.– Oro har, ikasleak eskatu ahalko du irakasgai-deialdiari uko egitea, irakasgaia ematea amaitu baino hamabost egun lehenago, gehienez ere, urteko programazio orokorrean, edo, irakasgaiaren irakaskuntza-gidan hala badagokio, ikastetxeak ezarritako egutegiaren arabera, zeina ikastetxeak argitaratuko baitu.

9. artikulua.– Matrikula galtzea, aurrez aurreko eskoletara ez joateagatik.

1.– Ikastetxeko zuzendaritzako pertsona titularrak, ikasleari entzun ondoren, deuseztatu egingo du ikaslearen matrikula, baldin eta eskola-hilabete batez jarraian ez badoa eskolara edo matrikulatuta dagoen irakasgaietako aurrez aurreko eskola-ordu guztien % 30 galtzen badu, betiere alde batera utzi gabe artikulu honen 2. paragrafoan ezarritakoa.

2.– Eskolara ez joateko arrazoi justifikatuak baldin badaude, interesdunak ikastetxearen zuzendariari jakinarazi beharko dio, eta kasu horretan ikasleak ez dio utziko ikasle izateari, honako kasu hauetan izan ezik: eskolara joan gabe bi hilabete jarraian egiten badira, edo matrikulatuta dagoen irakasgaietako aurrez aurreko eskola-ordu guztien % 50 galtzen badu eskolara ez joanda.

3.– Matrikula deuseztatzen bada, ikastetxeko ikasle izateari utziko zaio eta matrikula moduan ordaindutako prezio publikoa galduko da. Matrikula-deuseztapena idatziz jakinaraziko zaio interesdunari, betiere modu frogagarrian.

4.– Lehenengo kurtsoko matrikula bada, sarrera-proba espezifikoa gainditu beharko da berriro ikastetxera sartzeko. Beste kurtso bateko matrikula bada, hurrengo kurtsoetan matrikula egin ahalko da baldin eta ohiko matrikulazio-aldia amaitu eta gero plaza librerik geratzen bada.

10. artikulua.– Titulua.

1.– Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzak gainditua, Arte Dramatikoko Goi-mailako titulua eskuratuko da, Interpretazio espezialitatean. Titulu hori ofiziala izango da eta balio akademiko eta profesionala izango du estatu espainolean.

2.– Arte Dramatikoko Goi-mailako tituluak sarbidea emango du unibertsitateko master edo doktoretzako irakaskuntza ofizialetarako, betiere honako xedapen hauetan ezarritako baldintzetan: 1393/2007 Errege Dekretua, urriaren 29koa, unibertsitateko ikasketa ofizialak arautzen dituena, eta 1614/2009 Errege Dekretua, urriaren 26koa, goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duena.

11. artikulua.– Kredituak aitortzea eta transferitzea.

1.– Oro har, lortutako kredituak aitortu ahal izango ditu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, aintzat harturik egindako irakasgaien konpetentzien eta edukien eta egiten ari den ikasketa-planean aurreikusitakoen arteko egokitasuna.

2.– Espedientea autonomia-erkidego batetik beste batera bidaliz gero, ikasketa berekin jarraitzeko, lortutako kreditu guztiak aitortuko dira.

3.– Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzetako tituluaren beste espezialitate berri batera sartzean, oinarrizko prestakuntzako ikasgaiei dagozkien lortutako kreditu guztiak aitortuko dira.

4.– Inoiz ez dira aitortuko ikasle bat egiten ari den ikasketetako ikasketa-amaierako lanari esleitutako kredituak.

5.– Gehienez ere 6 kreditu aitortu ahalko zaizkie ikasleei kultura-, arte-, kirol-, ikasleen ordezkaritza-, elkartasun- eta lankidetza-esparruetako jardueretan parte hartzeagatik.

6.– Kredituen aitorpena behar duten irakasgaietarako, jatorrizko ikastetxean lortutako kalifikazioa izango da kontuan. Kalifikaziorik ez duen kredituen aitorpena ez da kontuan izango haztapenerako.

7.– Transferitutako kredituak Tituluaren Europar Gehigarrian islatuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko otsailaren 16an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA, OTSAILAREN 16KO 23/2016 DEKRETUARENA

IKASKETA-PLANA

Arloa	Irakasgaia	Izaera	1.	2.	3.	4.
			ECTS	ECTS	ECTS	ECTS
Ikuskizunari eta Komunikazioari buruzko Teoriak	Arte dramatikoaren eta dantzaren teoria eta historia. Metodoak eta sistemak.	B	6			
Ikuskizunaren Arteen Historia	Literatura Dramatikoaren Historia eta Teoria (I)	B	4			
	Literatura Dramatikoaren Historia eta Teoria (II)	B		4		
	Euskal antzerkia. Euskal Eszenaren Historia.	B	4			
Dramaturgia	Dramaturgia	DE	6			
	Testuaren Analisia	DE		3		
	Hizkuntza eta Ikus-entzunezkoen Narratiba	DE			3	
Mugimendua	Dantzari eta Mugimenduari buruzko Analisia eta Teknikak (II) I	DE	8			
	Dantzari eta Mugimenduari buruzko Analisia eta Teknikak (II) II	DE		4		
	Dantzari eta Mugimenduari buruzko Analisia eta Teknikak (II) III	DE			3	
	Akrobazia eta Zirkuko Teknikak (I)	DE			4	
Interpretazio-sistemak eta -teknikak	Antzerki Fisikoa (I)	DE	8			
	Antzerki Fisikoa (II)	DE		6		
	Artearen Komedia	DE			3	
	Clown-a	DE			3	
	Interpretazioa Ikus-entzunezkoan	DE			4	
	Interpretazioa (I)	DE	10			
	Interpretazioa (II)	DE		8		
	Interpretazioa (III)	DE			6	
Antzezpena	Antzezte-adierazpen Garaikideen Tailerra (I)	DE		3		
	Antzezte-adierazpen Garaikideen Tailerra (II)	DE			3	
	Diziplinarteko Proiektuen Laborategia (I)	DE		6		
	Diziplinarteko Proiektuen Laborategia (II)	DE			4	
	Muntaketari buruzko Tailer Praktikoa (I)	DE				20
Ahotsa eta Musika	Ahotsa (I)	DE	5			
	Ahotsa (II)	DE		5		
	Ebakera eta Ahozko Adierazpena (I)	DE			6	
	Ebakera eta Ahozko Adierazpena (II)	DE				5
	Musika eta Kantua (I)	DE	5			
	Musika eta Kantua (II)	DE		4		
Ikuskizunaren Arteei Aplikatutako Teknologia	Espazio eszenikoari Aplikatutako Teknologiak	DE			3	
Pertsonaien Diseinua	Karakterizazioa	DE		3		
	Janzkera	DE				3
Ekoizpena eta Kudeaketa	Antzezte-proiektuen Ekoizpena eta Kudeaketa. Ekintzailetza. I	B		3		
	Antzezte-proiektuen Ekoizpena eta Kudeaketa. Ekintzailetza. II	B			3	
Pedagogia	Arte Eszenikoen Pedagogia	B				4
Erabilera libreko kredituak		ELK		1	2	3
Hautazkoak		HA		4	7	9
Practicum-a	Praktikak	PR	4	6	6	6
Ikasketa-amaierako lana		IKL				10
	Guztizkoa		60	60	60	60

B: Oinarrizko Prestakuntzako Irakasgaiak
DE: Espezialitateko Derrigorrezko Irakasgaiak
HA: Hautazko irakasgaiak
PR: Practicum-a Praktikak
IKL: Ikasketa-amaierako lana
ELK: Erabilera libreko kredituak

II. ERANSKINA, OTSAILAREN 16KO 23/2016 DEKRETUAREN

IKASGAIAK ETA EDUKIEN BLOKEAK

LEHENENGO KURTSOA

Irakasgaia: Arte Dramatikoaren eta Dantzaren teoria eta historia. Metodoak eta sistemak.

Kurtsoa: 1

Kreditu kop.: 6

Deskribatzaileak:

– Hizkuntza eszenikoaren, antzerkiaren, dantzaren eta ikus-entzunezko hizkuntzaren printzipioak aztertzea.

– Sorkuntza dramatikoa eta ikus-entzunezkoena fenomeno komunikatibo gisa aztertzea eta ulertzea: alderdi estetikoak, semiotikoak, antropologikoak eta soziologikoak.

– Antzezlearen prestakuntzarekin zerikusia duten antzezpen-sistemak ezagutzea.

– Ikuskizunaren komunikazio-helburua eta ikusleen hartzearekin zerikusia duten baliabideak aztertzea.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Komunikazioaren teoriaren oinarrizko printzipioak ezagutzea, antzezpen- eta ikuskizun-praktikei dagokienez.

– Antzerkia eta dantza ikuskizun-arteen esparruan kokatzea.

– Antzezte-hizkuntzaren ezagutza bereganatzea, historian zehar arte eszenikoen bilakaera markatu duten oinarrizko testuen azterketa teoriko-praktikoa eginez.

– Praktika eszenikoetan parte hartzen duten bitartekoak ikertzea eta aztertzea modu integratuan eta diziplinartekoan (gorputza, espazioa, denbora eta mugimendua), eta horiek duten zerikusia beste arte-praktika batzuekin (musika, argia, pintura, eskultura, arkitektura eta eszenografia) eta zenbait adierazpen eszenikoekin (sorkuntza dramatikoa, dantza eta ikus-entzunezkoa), fenomeno komunikatibo gisa, testuinguru soziohistorikoari, semiotikoari, estetikoari eta antropologikoari dagokienez.

– Antzerti-antropologiaren oinarriak identifikatzea, baita hitzik gabeko komunikazioaren printzipioak eta arte eszenikoen oinarrizko kontzeptuak ere.

– Gizarte desberdinen ezaugarrien eta horien barnean sortzen diren ikuskizun-moldeen arteko loturak ezagutzea.

– Artisten eta ikusleen artean sortzen den komunikazio-egitura ezagutzea.

– Hizkuntza eta teknologia berrien komunikazio-ahalmena ezagutzea, gaur egungo praktika eszenikoei dagokienez.

– Dokumentatzeko eta Ikuskizunaren soziologiaren eta antropologiaren eremuan ikerketak egiteko ezagutza eta tresna metodologikoak eskuratzea, baita XX. eta XXI. mendeetako antzezte-sistema edo -metodoei dagokienez ere.

– Ikusleek ikuskizunaren gainean egiten duten kritika, azterketa eta ikuskizuna nola hartzen duten jakiteko osagaiak ezagutzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, helburu hauek lortzeko:

– Komunikazioaren oinarrizko printzipioak eta eboluzio historikoa ezagutzea.

– Komunikazioak gizarte garaikideetan duen egitekoa ulertzea.

– Arte eszenikoek duten egitekoan sakontzea, komunikazio- eta sozializazio-eragile diren aldetik.

– Hizkuntza eszenikoaren eta ikus-entzunezkoaren osagaiek aztertzea, komunikazio-nahita-sunaren ikuspegitik.

– Soziologiaren eta antropologiaren oinarriak ezagutzea, baita diziplina horiek hainbat garaitako eta gizartetako ikuskizunen inguruko ikerketari egin dioten ekarpena ere.

– Ikuskizun mota desberdinak deskribatzea, alderdi estetikoei, semiotikoei, antropologikoei eta soziologikoei dagokienez.

– Ikuskizunaren eta ikusleen arteko harremana aztertzen duten testu teoriko garrantzitsuenak ezagutzea.

– Antzezpen eta dantza garaikideetarako prestakuntza-sistema nagusiak ezagutzea.

– Ikuskizun mota desberdinetako kontzeptuak, testuak eta irudiak aztertzea, horien antzezpen-ezaugarriak, komunikazio-gaitasuna eta kalitate estetikoa baloratuz.

– Kritika eta antzerti-harrera argudiatzea ahalbidetzen duten antzerti-elementu eta -zeinuak ezagutzea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Literatura Dramatikoaren Historia eta Teoria (I)

Kurtsoa: 1

Kreditu kop.: 4

Deskribatzaileak:

Ondare dramatiko unibertsaleko testu garrantzitsuenen azterketa, literaturaren ikuspuntutik, honako hiru oinarrizko alderdiei dagokienez:

– ze une historikotan sortu ziren.

– horien alderdi formalak eta edukikoak argitzea.

Genero desberdinak eta horien ibilbide historikoa berrikustea.

Genero eta forma dramatikoen eboluzioa, historian zehar.

Gugimendu, estilo, egile eta gai desberdinen azterketa, garai bakoitzeko korronte estetikoen eta aldaketa sozial, politiko eta ekonomiko esanguratsuen arabera.

Arte dramatikoari buruzko testu teoriko garrantzitsuenak ezagutzea.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Antzerkiaren fenomenoa ezagutzea literaturaren ikuspuntutik, egile nagusietatik eta ondare dramatiko unibertsaletik abiatuta.

– Garai bakoitzeko oinarrizko lanak ezagutzea.

– Lan horien azterketa kritikoa egitea ahalbidetuko dioten tresna teoriko eta metodologiko oinarrizkoak erabiltzea.

– Informazio garrantzitsua bildu, aztertu, laburbildu eta egoki kudeatzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, helburu hauek lortzeko:

– Egile dramatiko nagusiak eta horien lan esanguratsuenak ezagutzea.

– Testu dramatiko baten egiturak identifikatu eta aztertzea, baita horien eginkizunak ere.

– Testu dramatikoaren teoria nagusiak eta eboluzio historikoa ezagutzea.

– Literatura dramatikoaren lan garrantzitsuenak oinarritzen direneko testuinguru sozial eta kulturalen ezaugarri nagusiak azaltzea.

– Lan baten eta haren testuinguru historikoaren gainean lan kritikoak egitea ahalbidetuko duten iturri desberdinak erabiltzea.

– Irizpide pertsonal bat izatea, proposatutako testu desberdinen edukia, forma eta testuingurua aztertu ahal izateko.

– Hainbat garai eta literatura-estilotako testu dramatikoen arteko analogiak eta desberdintasunak bilatzea.

– Korronte dramatiko nagusiak eta horien eboluzio historikoa ezagutzea, baita horiek oinarritzen direneko testu teorikoak edo dramatikoak ere.

– Garai historiko bakoitzeko lan dramatiko garrantzitsuenak sortu zireneko testuinguru sozial eta kulturalen ezaugarri nagusiak azaltzea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Euskal Antzerkia. Euskal Eszenaren Historia.

Kurtsoa: 1

Kreditu kop.: 4

Deskribatzaileak:

Euskal Antzerkiaren eta beste antzezpen-forma batzuen historia soziala, Ilustraziotik gaur egunera arte.

Sorkuntza dramatikoa eta dantzari buruzkoa aztertu eta ulertzea, komunikazio-fenomenoa den aldetik, alderdi soziologiko eta antropologikoei dagokienez.

Antzerki-adierazpen tradizionalak (pastorala, maskarada, xaribaria, inauterietako tragikomediak eta abar), dantza zeremoniatsuak, sozialak eta talde-partaidetzako eta beste antzezpen-adierazpen batzuk.

Antzezpen forma tradizionalak lantzen dituzten mitoak, erritoak eta sinesmen sozialak ezagutzea.

Euskal ekoizpen eszenikoa, Ilustraziotik gerra zibilera artekoa. Horien testu eta egile adierazgarrienen azterketa.

Antzerki eta dantza profesionala, XX. mendeko azken herenetik gaurdaino: konpainiak, produkzioak, egileak, korronteak eta eragin estetikoak.

Elementu teorikoak eta metodologikoak ekartzea, prozesu eta praktika eszenikoen ikerketa sozio-kulturala egiteko.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Antzerkia eta dantza txertatzen direneko testuinguru historikoa eta eremu kulturala erlazionatzea.

– Antzerti-antropologiaren oinarriak ezagutzea, Euskal gizarteari dagokionez. Mitoen, eta erritoen eboluzioa aztertzea, baita horien isla ere antzerki-izaeran.

– Euskal gizartean egon diren aldaketa estetiko-kulturalak ezagutzea, Ilustrazio-garaitik gaurdaino, antzezpen-kontzeptuaren eta -formen azterketatik abiatuta.

– Euskal Herriko antzerkiaren, dantzen eta beste adierazpen eszeniko batzuen forma tradizionalak ezagutzea.

– Bertsolaritzaren fenomenoa identifikatu eta ezagutzea, haren eboluzio historikoa, euskal antzerkiaren espresioekin duen lotura eta Euskal Herriko arte eszenikoen esparruan duen zeregina.

– Herri-antzerkiaren adierazpenak erlazionatzea urteko egutegiko jakineko egun eta aldiei lotutako jai eta erritualekin.

– Euskal gizartean hainbat garaitan izan diren eraldaketen eta antzezpen-adierazpenen arteko loturak ezagutzea.

– Aldi bakoitzeko lanak eta egile garrantzitsuenak ezagutzea, baita horiek oinarritzen direneko korronte ideologikoak eta estetikoak ere.

– Euskal Herriko historiari dagokionez landutako testuak ondo kokatzea testuinguruan.

– Aztertutako garaietako lanetan agertzen diren eztabaida sozialak, estetikoak eta ideologikoak menderatzea.

– Aztertutako garaietako eboluzio estilistikoa eta generoen eboluzioa bereiztea.

– Aztertutako testu dramatikoen alderdi formalak eta edukiari dagozkionak aztertzeko gai izatea.

– Aztertutako testuen antzezte-aukerak identifikatzea, jatorrizko testuinguruan zein egunekoan.

– Aztertutako testuen posibilitate eszenikoak ikusteko gai izatea.

– Euskal Herrian gaur egun dagoen ekoizpen eszeniko profesionalaren ezaugarri espezifikoak ezagutzea.

– Euskaraz egindako antzerki-lanen berezitasunak identifikatu eta aztertzea.

– Hainbat garaitako euskal antzerkia eta dantza hobeto ezagutzeko tresna teorikoak eta metodologikoak erabiltzea, eta garai hartako gizartearekin erlazionatzea.

– Antzezpen-adierazpen batzuen nagusitasuna, beste batzuekiko, ezartzen duten prozesu sozialak et politikoak ezagutzea.

– Gizarte garaikidean, arte-ekoizpenaren ikuspegi antropologikoa garatzeko kritika- eta laburpen-gaitasuna sustatzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, helburu hauek lortzeko:

– Antropologia kulturalaren oinarriak identifikatzea eta arte eszenikoetan erabiltzea.

– Euskal Herriko sorkuntza eszenikoaren begirada sozio-antropologikoa sartzea, hainbat garairi eta bizitzeko eta gizartea antolatzeko moduri aplikatuz.

– Antzezpen-adierazpen tradizionalen egitura eta edukiak ezagutzea: pastorala, maskarada, xaribaria, eta abar.

– Hainbat dantza tradizional mota ezagutzea, baita horien esanahia eta eginkizun soziala ere, garai eta gizarte-eredu desberdinetan.

– Herri-antzerkiko adierazpenak ondo kokatzea, oinarritzen diren esparru sozialen testuinguruan.

– Ulertzea herri-antzerkiaren eta -dantzen adierazpenen eginkizunak zeintzuk diren beren testuinguru sozialetan.

– Arte-adierazpen tradizionalak modernitatearen berezko adierazpenekin erlazionatzea.

– Antzerki burgesaren, abangoardiako antzerkiaren eta herri-adierazpenen arteko eragina identifikatzea.

– Herri-antzerkiaren errepertorioak praktika eszeniko garaikiderako eskaintzen dituen aukerak identifikatzeko gai izatea.

– Euskaraz egindako antzerki-produkzioa ezagutzea, Ilustraziotik gaurdaino, eta beraren garai desberdinetan eta testuinguru sozial eta kulturaletan kokatzea.

– Garai bakoitzeko euskal ekoizpen dramatikoa eta beste antzerkigintza batzuen ekoizpena erlazionatzea, haien arteko analogiak eta aldeak identifikatuz.

– Aurreko gizarte tradizionalen fenomeno artistiko ezagunen gainean proiektatzen diren ikuspegi edo balorazio estereotipatuak berrikustea, eta arte-adierazpen desberdinen hierarkizazioa aztertzea kritikoki, jatorri jasoa edo herrikoia izatearen arabera.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Dramaturgia

Kurtsoa: 1

Kreditu kop.: 6

Deskribatzaileak:

Ikuskizuna konfiguratzen duten hizkuntza desberdinen metodologia eta azterketaren teknika, testuaren analisian arreta berezia jarrita.

Genero-analisia, egiturak eta argumentuak, pertsonaiak eta egoera dramatikoetan.

Eszenifikazioaren printzipio orokorrak.

Eszenifikazioa ikuskizun desberdinetan (antzerkia, dantza, ikus-entzunezkoak).

Eszenifikazioaren sorkuntza-prozesuaren hastapenak.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Dramaturgiaren oinarrien eta printzipio orokorren ezagutza teoriko-praktikoa bereganatzea, sorkuntza eszenikoaren prozesuan (arte dramatikoa, koreografia, ikus-entzunezkoa).

– Hainbat dramaturgia eszeniko ezagutzea, ikuskizunaren dramaturgia garaikideak batik bat.

– Dramaturgia aztertzeko irizpideak bereganatzea ikuskizun eszenikoaren ikuspegi eta adierazpen desberdinetan (antzerkia, dantza, ikus-entzunezkoa), egiturak, generoak eta estiloak bereiziz argumentuak sortzeko prozesuan, pertsonaia eraikitzean eta egoera dramatikoetan.

– Semiotika dramatikoaren oinarrizko ezagutza izatea.

– Honako hauei aplikatutako teknikak eta prozesu sortzaileak ezagutu eta aztertzea: testu dramatikoaren edo partitura dramatikoaren idazketa, ikus-entzunezko gidoia, genero, estilo eta bitarteko desberdinetan.

– Eszenifikazioaren eta eszenifikazio-prozesua konfiguratzen duten elementuen hastapen orokorrak ezagutzea: antzezte-lekua, argiztapena, jantziak, karakterizazioa, soinu-espazioa, ikus-entzuneko espazioa.

– Eszenifikazioa aztertzea antzezpen-adierazpen desberdinetan.

– Eszenifikazioa aztertzea, egoerari, pertsonaiari eta eszenari dagokienez.

– Hainbat eszenifikazio-metodo eta -eskolen printzipio estetikoak, etikoak eta humanistikoak ezagutzea: tradizioak, joerak eta sortzaileak.

– Testu dramatikoa aztertzea eta proiektu eszeniko baten eszenifikazioa modu oinarrizkoan diseinatzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, helburu hauek lortzeko:

– Dramaturgiaren printzipio orokorrak identifikatzea, baita kontzeptuaren eboluzio historikoa eta dramaturgoaren eginkizunak eszena sortzeko lanetan ere.

– Pentsamendu dramatikoaren eboluzioaren eta eszenan ezartzearen unerik garrantzitsuenak ezagutzea, gailentzen diren ideia estetikoekin eta garai bakoitzeko eraldaketa sozial eta kulturalekin erlazionatuz.

– Testu eszenikoaren edo ikus-entzunezko gidoiaren oinarrizko osagaiak aztertzea.

– Garai desberdinetako lan esanguratsuak aztertzea, horien forma eta gaiak interpretatuz eta sortu ziren garaiko testuinguruan kokatuz eta egileak zein diren adieraziz.

– Gai, topiko, mito eta argumentu unibertsalak identifikatzea, literatura dramatikoan bai eta horiek arte ikus-entzunezkoetara aldatzean ere, eta modu kritikoan baloratzea horiei emandako tratamendua eta izan duten eboluzioa.

– Lan dramatikoen balorazioak egitea, ahoz zein idatziz, ideia eta sentimendu kolektiboen topagune eta norberaren esperientzia handitzeko tresna gisa.

– Testu dramatikoa sortzeko mekanismoa garatzea, egituren eta antzerki-generoen analisitik abiatuta.

– Antolatu, lehenetsi eta irizpide egokiak erabiltzea, sorkuntza eszenikoaren prozesua osatzen duten fase desberdinen arabera.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Dantzari eta Mugimenduari buruzko Analisia eta Teknikak (I)

Kurtsoa: 1

Kreditu kop.: 8

Deskribatzaileak:

Lokomozio-aparatuaren ezagutza anatomiko-fisiologikoa.

Hitzik gabeko komunikazioaren eta adierazpenaren printzipioak (lengoaia kodetuak eta ez kodetuak). Gorputza ezagutzea eta gorputzaz jabetzea.

Prestakuntza fisikoa eta entrenamendua.

Osaera formala eta mugimenduaren esanahia.

Dantza eta koreografia.

Gorputza, tresna sortzaile gisa hartuta.

Gorputzaren prestakuntza integratua, interpretazio-lanaren euskarri den aldetik.

Zentzumenaren. keinuen, mugimenduaren eta desplazamenduaren azterketa.

Erritmoaren azterketa, espresio-bide gisa hartuta.

Dantzaren hizkuntzaren berezko tresnen hastapenak, antzezpenean eta konposizio koreografikoan.

Komunikazio- eta adierazpen-printzipioak eta -tresnak, sorkuntza indibiduala eta kolektiboa posible egiten dutenak.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Lokomozio-aparatuaren ezagutza anatomiko-fisiologikoa bereganatzea.

– Gorputzaz jabetzeko, gorputza kokatzeko eta gorputza espazioan kokatzeaz jabetzeko kontzientzia garatzea.

– Mugimendua eta horren adierazpen-ahalmena aztertzea: mugimendu motak eta erritmoa adierazpen-elementu gisa.

– Gorputzaren, mugimenduaren, keinuen eta ekintza fisikoaren adierazpen-kontrola helburu duten mugimendu-teknikak bereganatzea.

– Inprobisazio-, konposaketa- eta interpretazio-ariketak egitea, mugimenduaren bitartez.

– Gorputza osorik prestatzea, arrazoia eta emozioak elkartzeko gune eta interpretazio-lanaren euskarri gisa.

– gorputz-adierazpeneko hizkuntzaren printzipio teknikoak eta adierazpen-printzipio berezkoak ezagutzea eta interpretazio-lanean aplikatzea.

– Proposamen eszenikoak, indibidualak eta kolektiboak egitea, komunikatzeko helburuarekin.

– Dantzako oinarrizko teknikak eta dantza akademiko eta garaikidearen mugimenduaren printzipioak ezagutu eta praktikatzea.

– Mugitzeko arintasuna garatzea, eta erritmoa, fraseatzea, musikaltasuna, dinamika, intentzioa eta espazioan mugitzeko gaitasuna bereganatzea.

– Mugimendua bateratzea eszenaratzea osatzen duten gainerako hizkuntzekin.

– Pertsonaia eta ekintza dramatikoa koreografian txertatu eta mantentzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, helburu hauek lortzeko:

– Mugitzean, eskeletoaren eta muskulu-talde nagusien eginkizuna ezagutzea.

– Arnasa, muskuluen desblokeoa eta gorputzaren prestasuna kontrolatzea, mugimendu-ariketak egiteko.

– Ariketa fisikoak egiterakoan, gorputz-jarrera zuzena eta segurua hartzea, mugimenduen autokontrola erakutsiz.

– Proposatutako ariketak egiteko eskatzen diren trebetasun fisikoa eta koordinatzeko ahalmena menderatzen direla erakustea.

– Gorputzaren balio espresiboa eta horren erabilera ezagutzea, eszenaren berezko komunikazio-prozesuetan.

– Presentzia psikofisikoa modu espresiboan eta komunikatiboan erabiltzea.

– Gorputz-adierazpeneko hizkuntzaren printzipio teknikoak eta adierazpen-printzipio berezkoak ezagutzea eta interpretazio-lanean aplikatzea.

– Inprobisazio-ariketa praktikoak egitea, emandako jarraibideei jarraituz, gorputzaren kontrola eta adierazpen-gaitasuna erakutsiz.

– Gorputz-kreazio indibidualak zein taldekoak erakustea, non ingurune edo egoera desberdinak islatuko diren, bereganatutako ezagutzak eta ikuskizunaren parte diren beste hizkuntza batzuk erabiliz.

– Dantza akademiko eta garaikidearen oinarrizko pausuak eta hiztegi teknikoa ezagutzea, eta antzerki-eszenan erabiltzea.

– Dantzako mugimenduak arintasunez, erritmo-zentzuaz eta musikaltasunez egitea.

– Buruz ikastea estilo desberdinetako lan koreografikoak.

– Pertsonaia ekintza koreografikoan txertatu eta mantentzea, ahotsa eta keinuak mugimenduaren dramaturgiara ekarriz.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Antzerki Fisikoa (I)

Kurtsoa: 1

Kreditu kop.: 8

Deskribatzaileak:

Keinu bidezko interpretazioaren printzipio estetikoak, etikoak eta humanistikoak ezagutu eta prozedura teknikoak menderatzea.

– Keinu-interpretazioaren printzipio estetikoak, etikoak eta humanistikoak ezagutu eta prozedura teknikoak menderatzea.

– Testuinguru eszenikoetan erabiltzea.

– Gorputzaren, energiaren eta grabitatearen arteko erlazioa.

– Gorputz-segmentazioko eta -artikulazioko tekniken hastapenak.

– Sorkuntzan oinarritutako antzerkia egitea erraztuko duten hizkuntzak bilatzea, bizitzaren behaketatik abiatuta.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Interpretazioaren aurreadierazpen-teknikak eta oinarrizko printzipio psiko-fisikoak ezagutzea, mugimendutik eta inprobisazioaren oinarriko legeetatik eta jolas eszenikotik abiatuta.

– Inprobisazioaren teknikak ezagutzea, norberaren pertzepzioan eta emozioak transmititzeko gaitasunean sakontzeko.

– Keinu bidezko antzerkian antzezpeneko prozedura eta teknika desberdinak ezagutu eta menderatzea.

– Aktore-lanaren oinarriak ezagutzea, esperimentazio pertsonalaren, praktika kolektiboaren eta azterketa teorikoaren bitartez.

– Entrenamendu psiko-fisikoaren oinarrietan, akzio-partiturak egiten, jolas eszenikoan, inprobisazioan eta entseguan trebatzea.

– Aktore-azterketako prozedurak egoera dramatikoari eta pertsonaiari aplikatzea.

– Aktoreen barne-prozesuetan sakontzea.

– Haren nortasun sortzaileaz jabetu eta hura sustatzea.

– Irudimena eta adierazpen-baliabideak garatzea (gorputza/ahotsa) mugimendua eta pertsonaiaren hizkuntza sortzeko.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Entrenamendu psiko-fisikoaren jarraibide indibidualak eta taldekoak bereganatu eta ikaste- eta antzezpen-prozesuko hainbat unetan erabiltzea.

– izaera desberdin eta konplexutasuneko ariketa, inprobisazio eta egoera dramatikoetan modu organikoan antzeztu eta komunikatzea.

– Inprobisazioaren teknikak menderatzea, norberaren pertzepzioan eta emozioak transmititzeko gaitasunean sakontzeko.

– Aktore-lanerako metodoak ezagutu eta aplikatzea, ekintza fisikoetatik eta azterketa-, osaera-, bizipen- eta antzezpen-prozedura desberdinetatik abiatuta.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Interpretazioa (I)

Kurtsoa: 1

Kreditu kop.: 10

Deskribatzaileak:

Inprobisazioaren praktika, beldur eszenikoa galtzera eta interpretearen berezko tresnak eskuratzera bideratuta.

Egoera, ekintza eta pertsonaia eraiki eta garatzea, gatazka dramatikoaren ezagutzatik abiatuta.

Pertsonaia sortzeko prozesua.

Interpretazio-teknika desberdinak aplikatzea, egoeraren baldintzen arabera.

Lan-metodoaren ezagutza eta esperimentazioa.

Lortutako emaitzaren eta lan-metodoaren balorazioa eta kritika.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Inprobisazio-praktikak garatzea, prestakuntzako alderdi desberdinak laburbilduz eta sorkuntzaren prozesu globalaren konplexutasunaren ezagutza eta esperimentazioa sartuz horretan; lan hori guztia aktore-lanaren berezko tresnak eskuratzera bideratuta dago.

– Gatazka-egoera batean portaera organikoa garatzeko gai izatea.

– Eszena prestatzeko eta antzezteko behar diren trebetasunak eta osagarriak bateratzea. Entzute pertsonal eta kolektiboa. Espazio-kontrola. Denbora-kontrola. Erritmo eszenikoa.

– Egoera, ekintza eta gatazka dramatikoa eraiki eta garatzeko hainbat teknika aplikatzea, baita pertsonaiarengana hurbiltzeko hainbat sistema tekniko ere.

– Aktorearen adierazpen-baliabideak eta barne-prozesuak garatzea, erabilitako interpretazio-sistemen eskakizunei egokituta.

– Norberaren ahalmen teknikoak eta espresiokoak esploratu eta lantzea.

– Aktorea estimulatzeko bideak ezagutzea, eta irudimen sortzailea garatzea.

– Akzio-erreakzio prozesua eta inprobisazio-teknikak praktikatzea.

– Metodoak eta diziplinarteko lan-prozedurak ezagutu eta probatzea.

– Egoera dramatikoak aztertu eta praktikan jartzea, testu edo inprobisazioetatik abiatuta, horien eduki sentsorial, emozional, intelektual eta estetikoen komunikazio-ahalmenari begiratuz.

– Interpretazio-lanean txertatzea beste ikasgai batzuen konpetentzia teknikoak eta kontzeptualak, ahotsa, musika eta kantua, mugimendua eta pertsonaiaren diseinua esate baterako.

– Antzezpen-teknikak ezagutu eta probatzea, pertsonaiaren kontzeptutik abiatuta.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Autodiziplina garatzen eta interpretearen prestakuntzako oinarrizko osagaiak bereganatzen aurrera egin duela erakustea, programatutako jardueretan modu arduratsu eta sortzailean parte hartuz.

– Autonomia eta ekimena erakustea, artearen ikerketan, prestakuntzan eta jardueretan.

– Interpretazioan eta eszenaratzeko prozesuan parte hartzen duten irakasgai desberdinetako ezagutzak eta prozedurak txertatu eta modu sortzaile eta kontzientean erabiltzea.

– Entsegu eta antzezpenetan, adierazpen-, keinu-, soinu- eta plastika-balioak sortu eta argitasunez, indarrez, aniztasunez eta modulazioz komunikatzea.

– Testu dramatikoak aztertzeko eta eszenan jartzeko lan-sistema eta -metodologia koherenteak erabiltzea.

– Gorputza eta haren energia ekoizpen-sistemak aldatzen dituzten elementuen erabilera kontzientea bereganatu eta garatzea, haren adierazpen-ahala eta performatiboa zabalduz.

– Pertsonaiak sortu eta eszenaratzeko ideian txertatzea, zehaztasunez eta organizitatez, eta gainerako interpreteei eta proposamen eszenikoa osatzen duten gainerako elementuei dagokienez.

– Prozesu performatiboetan, sorkuntzako oinarri espezifikoak aztertzean ikasitako kontzeptuak, edukiak, prozedurak eta hizkuntzak erabiltzea.

– Norberaren lana ebaluatzeko gaitasuna eta etengabe hobetzeko prestutasuna izatea.

– Modu autonomoan praktikatzea entrenamenduko ariketa-taulak eta prestakuntza indibidual eta kolektiboko teknikak, antzezpenaren aurrekoak.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Ahotsa (I)

Kurtsoa: 1

Kreditu kop.: 5

Deskribatzaileak:

Erlaxazioa, arnasketa, gorputz-jarrera, soinu-ekoizpena, artikulazioa eta zuzenketa fonetikoa.

Fonazio-aparatuaren ezagutza anatomiko-fisiologikoa.

Ahotsa ezagutzea eta ahotsaz jabetzea.

Ahotsa prestatzea eta trebatzea.

Ahots-teknikaren alderdi guztiak menderatzea (arnasketa, erresonadoreak, artikulazioa, emisioa, eta abar).

Ahots-ekoizpenaren eta -emisioaren teoriak, praktikak eta erabilerak.

Gorputza, ahotsaren euskarri: anatomia, ahotsaren eta gorputzaren doikuntzak eta des-doikuntzak.

Soinu-sorkuntzaren estimulazioa.

Ahotsa, aktorearen tresna aktibo eta sortzailea.

Ahots-ekintzaren, ahoskeraren eta hizkuntzaren artikulazioaren erabilera (euskara/gaztelania).

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Giza-ahotsaren funtzionamendua ezagutu, ulertu eta transmititzen jakitea, ikuspegi teoriko batetik: arnas aparatua, fonazio aparatua eta aparatu erresonadorea.

– Fonazio-aparatuaren izaeraren eta norberaren ahotsaren ezagutzaren oinarri teoriko bat bereganatzea, ahots-praktikarako aurrebaldintza gisa.

– Ahots-teknikaren alderdi guztiak garatzea: erlaxazioa, postura-jarrera eta arnasketaren, artikulazio-mekanikaren eta soinu-ekoizpenaren erabilera zuzena.

– Soinua ekoizteko prozesua ulertzea.

– Ahots-emisioari lotutako ohitura ez osasungarriak ezagutu eta zuzentzea.

– Gorputza trebatzea soinu onena bilatzeko, egoerek eskatutakoaren arabera.

– Arnasketaren erabilera garatu eta sakontzea.

– Erresonadoreak aurkitu eta elementu psikofisiko gisa erabiltzen jakitea, zientzia- zein sorkuntza-alorretik.

– Ahozko hizkuntzaren musikaltasuna jartzea hitzetan.

– Ahozko hizkuntzaren adierazkortasuna ikertu eta egokitzea, antzerki-estilo desberdinen eta horien eskakizunen arabera.

– Ahots-teknikaren batera, adierazleen gardentasuna eta adierazien zehaztasuna batzea: horien elkarrenganako mendekotasunak eta berrelikadura.

– Komunikazio-gaitasuna garatzea, hitzezko hizkuntzaren eta hitzik gabekoaren bitartez.

– Ikasleak hizkuntzarekin duen harremana aztertzea, eta sormena sustatuko duten aldakuntzak eta aldaketak bilatzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Ahotsaren ekoizpenenean esku hartzen duten egitura anatomiko desberdinak ezagutu eta erabiltzea.

– Laringeko muskuluak nahita mugitzeko trebetasuna erakustea.

– Laringearen anatomia eta fisiologia ezagutzea, soinu-emaitzekin erlazionatuz.

– Fonazioan nahastutako mekanismoa identifikatu eta gorputzaren eta ahotsaren egoera bereiztea, ariketa bat egin aurretik, egitean eta egin ondoren.

– Ahots-beroketa egitea, baita trebetasuna lortzeko ariketa-taula bat ere, aktorearen beharrei erantzungo diona.

– Ahots-lana errazten duten erlaxazio-teknika (tentsio/distentsio) eta jarrera-sistema desberdinak ezagutzea.

– Arnasketa mota desberdinak ezagutu eta kontrolatzea: klabikularra, kostodiafragmatikoa, diafragmatikoa.

– Erresonadore desberdinak identifikatu, sentsibilizatu eta erabiltzea, jakineko ahots-kalitate eta tinbre-ezaugarri bat lortzeko.

– Landutako tinbreen substratu anatomiko-fisiologikoa ezagutzea.

– Emisioan, ahotsaren parametroak ondo identifikatu eta erabiltzea.

– Ahotsa ondo anplifikatu eta proiektatzea.

– Proiekzio-kontzeptua ezagutu eta aplikatzea, ez bakarrik ahotsari dagokionez, baita gorputzari eta interpretazioari dagokionez ere.

– Ahots-lanari ekitea, deshinibizioa, irudimena, adierazkortasuna, ikertzea eta harritzeko gaitasuna erraztuko duen ikuspegi ludiko batetik.

– Norberaren gaitasunak autoezagutzeko eta autorregulatzeko gaitasuna eskuratzea.

– Hitzik gabeko komunikazioaren elementuak identifikatzea.

– Entrenamendua landu, bideratu eta zuzentzea.

– Ahots aparatua zaintzeko programa bat aplikatzea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Musika eta Kantua (I)

Kurtsoa: 1

Kreditu kop.: 5

Deskribatzaileak:

Hizkuntza musikalaren oinarrizko elementuak eta musikaren printzipioak (erritmoa, melodia, harmonia, eta abar).

Hizkuntza musikala idazten eta irakurtzen hastea.

Musika, komunikatzeko eta arte-adierazpenak eta norberaren adierazpenak egiteko tresna.

Musikaren fenomenoa, interpretazioaren, azterketaren eta sorkuntzaren bidetik.

Printzipio musikalak eta forma aplikatzea, eta hori antzerki- eta eszena-fenomenoaren egungo eta historian zeharreko testuinguruan jartzea.

Ahots kantatuaren adierazpen-teknikak aztertzea.

Talde-lanaren bidezko kantuaren oinarrizko trebakuntza, alderdi teknikoei eta interpretaziokoei dagokienez.

Koru-kantuko teoriaren eta praktikaren hastapenak.

Ahots kantatuko teknikaren hastapenak.

Tinbrearen ezaugarrietara eta ematen dituen aukeretara hurbiltzea, norberaren ahotsaren malgutasuna eta adierazpen-ezaugarriak.

Fonetikari buruzko ikasketen eta testu kantatuaren ahoskeraren hastapenak.

Antzerki musikalaren genero desberdinen ezagutza.

Kantuaren teknika genero eta estilo desberdinetan erabiltzea.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Entzumen-, erritmo- eta melodia-gaitasunak garatzea, hizkuntza musikalaren elementuen ezagutza praktiko eta teorikoaren bitartez.

– Printzipio musikalak (erritmoa, melodia, harmonia eta abar) eta diziplina eszeniko desberdinekin (interpretazioa, eszenifikazioa, dantza) duten erlazioa ezagutzea, eta, printzipio horiek diziplina eszeniko desberdin horietan aplikatzea.

– Fenomeno musikala ulertzea, azterketa-, sortze- eta interpretazio-prozeduren bitartez.

– Egitura musikal eta soinudun bat ulertzea ahalbidetuko duten hizkuntza musikal eta soinudun desberdinen oinarriak ezagutzea, dramaturgiara eta eszenifikaziora eta interpretazio eta konposaketa koreografikoetara aplikatzeko.

– Ahots kantatua emititzeko erabiltzen diren tresnak eta sistemak ezagutzea.

– Kantu-teknikaren oinarrizko elementuak garatzea: gorputzaren jarrera, arnasketa, erlaxazioa, fonazioa eta erresonantzia.

– Norberaren ahotsaren ezaugarriak ezagutzea.

– Ahots kantatuaren elementu teknikoak eta espresiokoak ezagutu eta erabiltzea, koru-moduan zein banaka aritzean.

– Oroimen musikala lantzea.

– Testu kantatuaren fonetika eta ahoskera ikasten hastea.

– Erritmo-, melodia- eta harmonia-printzipioak aplikatzea partitura sinpleen interpretazio dramatiko-musikalean.

– Kantuaren teknika eta adierazpena aplikatzea genero eta estilo desberdinetan.

– Pertsonaiaren interpretazioaren mugimendua eta keinuak ahots-adierazpen kantatuarekin fusionatzea, modu adierazgarrian.

– Kantatzeko eta dantzatzeko konposatutako musika-lanen ezaugarri espezifikoak ezagutzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Hizkuntza musikala adierazteko printzipioak ezagutzea.

– Partitura sinpleak taldean interpretatzea, belarri hezia, afinazioa eta erritmoa erakutsiz.

– Ezagutzea erritmoaren, melodiaren eta harmoniaren printzipioak, interpretazio dramatiko-musikalera aplikatuta.

– Diskurtso musikala artikulatzen duten kode eta ikur desberdinak identifikatzea (erritmoa, metrika, notazioa eta irakurketa) praktika erritmikotik eta mugimendutik abiatuta.

– Fonazio aparatuaren fisiologia ezagutzea, baita horren erabilera ere kantua praktikatzeko.

– Kantatzerakoan, ahots jarduera onena ahalbidetuko duen gorputz-jarrera eta arnasketa mantentzea.

– Ahotsaren beraren ezaugarriak eta posibilitateak ezagutu eta ondo erabiltzea, kantatutako musika-lanak interpretatzeko.

– Gai kantatuak interpretatzean, ahotsaren tinbrea eta modulazioa kontrolatzea.

– Kantuaren oinarrizko teknika ezagutu eta genero eta estilo estetiko desberdinetako konposizioen interpretazio espresiborako erabiltzea.

– Bakarkako kantuaren eta kantu koralaren teknika lantzea.

– Kantatutako gaiak hainbat hizkuntzatan interpretatzea, kasu bakoitzean fonetika eta dikzio egokiak erabiliz testua ulergarria gerta dadin.

– Kantua mugimenduarekin eta pertsonaia interpretatzeko gainerako osagaiekin bateratzea, betiere gainerako interpreteekin harmonian eta eszenaratzearen irizpide globalen arabera.

– Dramaturgian eta ikuskizun mota desberdinetako eszenifikazioan erabiltzen diren soinu-elementuak aztertzea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

BIGARREN KURTSOA

Irakasgaia: Literatura Dramatikoaren Historia eta Teoria (II)

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 4

Deskribatzaileak:

Ondare dramatiko unibertsaleko testu garrantzitsuenen azterketa, literaturaren ikuspuntutik, honako hiru oinarrizko alderdiei dagokienez:

– Ze une historikotan sortu ziren.

– Horien alderdi formalak eta edukikoak argitzea.

– Genero desberdinak eta horien ibilbide historikoa berrikustea.

Genero eta forma dramatikoen eboluzioa, historian zehar.

Mugimendu, estilo, egile eta gai desberdinen azterketa, garai bakoitzeko korronte estetikoen eta aldaketa sozial, politiko eta ekonomiko esanguratsuen arabera.

Arte dramatikoari buruzko testu teoriko garrantzitsuenak ezagutzea.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Antzerkiaren fenomenoa ezagutzea literaturaren ikuspuntutik, egile nagusietatik eta ondare dramatiko unibertsaletik abiatuta.

– Garai bakoitzeko oinarrizko lanak ezagutzea.

– Lan horien azterketa kritikoa egitea ahalbidetuko dioten tresna teoriko eta metodologiko oinarrizkoak erabiltzea.

– Informazio garrantzitsua bildu, aztertu, laburbildu eta egoki kudeatzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Egile dramatiko nagusiak eta horien lan esanguratsuenak ezagutzea.

– Testu dramatiko baten egiturak identifikatu eta aztertzea, baita horien eginkizunak ere.

– Testu dramatikoaren teoria nagusiak eta eboluzio historikoa ezagutzea.

– Literatura dramatikoaren lan garrantzitsuenak oinarritzen direneko testuinguru sozial eta kulturalen ezaugarri nagusiak azaltzea.

– Lan baten eta haren testuinguru historikoaren gainean lan kritikoak egitea ahalbidetuko duten iturri desberdinak erabiltzea.

– Irizpide pertsonal bat izatea, proposatutako testu desberdinen edukia, forma eta testuingurua aztertu ahal izateko.

– Hainbat garai eta literatura-estilotako testu dramatikoen arteko analogiak eta desberdintasunak bilatzea.

– Korronte dramatiko nagusiak eta horien eboluzio historikoa ezagutzea, baita horiek oinarritzen direneko testu teorikoak edo dramatikoak ere.

– Garai historiko bakoitzeko lan dramatiko garrantzitsuenak sortu zireneko testuinguru sozial eta kulturalen ezaugarri nagusiak azaltzea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Testuaren Analisia

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

Semiotika dramatikoaren ezagutza, hautatutako testuen ikerketatik abiatuta.

Genero dramatikoaren eta dramaren teoriaren ezagutza sorreratik, eta horien oinarrizko egitura-elementuak: espazioa, denbora, ekintza eta pertsonaia.

Testua edo partitura dramatikoa aztertu eta baloratzeko dauden hainbat metodoren azterketa teoriko-praktikoa.

Antzezlanaren gatazken azterketa.

Pertsonaiak eta arketipoak aztertzea, alde psikologikoari eta gatazkak gertatzen zaizkieneko alde sozio-historikoari begiratuz.

Azterketa-lana eta eszenaratzea batzen dituzten faseak aztertzea.

Eszenaratzea osatzen duten gainerako hizkuntzekin integratzea.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Garai eta genero desberdinetako testu dramatikoen elementu egiturazkoak, testuingurukoak, kulturalak, historikoak eta sozialak aztertu eta ikertzea.

– Aukeratutako testuak eszenan jarri aurreko mahaiko lana egitea.

– Gertakarien eta gatazken arabera aztertzea lanen egitura, testuaren edo partituraren osotasunari zein eszena edo sekuentzia bakoitzari begira.

– Pertsonaiak aztertzea, arketipo psikologikoak diren aldetik.

– Testu dramatikoaren teorian sakontzea.

– Dramaturgia-sorkuntzaren eta -konposizioaren oinarrizko estrategiak ezagutzea (norbanakoaren motibazioa eta irudimena esploratzea, haren antolaketa eta lanketa, etab.).

– Egitura dramatikoak eta horien eginkizuna identifikatzea, baita horien esanahia ere testu dramatiko tradizionaletan zein dramaturgia ez konbentzionaletan eta ikus-entzunezko gidoietan.

– Azterketa teorikotik ekintzara igarotzea, eszenan jartzeko eta pertsonaiak sortzeko ondorioak atereaz.

– Irakasleek aztertzeko proposatutako jakineko eszenaratze batzuen dramaturgia-gakoak azaltzea.

Ebaluazio-irizpideak:

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Testu dramatikoak, ikus-entzunezkoak eta beste proposamen performatibo batzuen azterketa egiteko kontzeptuak eta oinarrizko tresna metodologikoak bereganatuta dituela erakustea.

– Testu edo partitura desberdinen elementuak aztertu eta identifikatzea, eszenaratzeko dituzten ezaugarriak, balio estetikoak eta gaitasunak baloratuz.

– Testu-analisia egiteko metodo eta tresna desberdina ezagutzea.

– Testu dramatiko edo ikus-entzunezko baten pertsonaien psikologia eta motibazioak ulertzea, baita ekintza sustatzen duten gatazkak ere.

– Testu bat analizatu eta eszenaratzeko proposamenak egitea.

– Eszenaratze baten irudiak eta ikurrak aztertzea.

– Balio-judizioak arrazoiz egitea eta irizpideak erakustea, antzerki eta ikus-entzunezko adierazpen desberdinetan egon daitezkeen harreman eta testuinguru artistiko, kultural, sozial eta historikoen gainean.

– Lan edo partitura dramatiko batzuen gainean eta horien eszenaratzeari dagokionez ideia originalak adieraztea modu sinesgarrian.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Dantzari eta Mugimenduari buruzko Analisia eta Teknikak (II)

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 4

Deskribatzaileak:

Lokomozio-aparatuaren ezagutza anatomiko-fisiologikoa.

Hitzik gabeko komunikazioaren eta adierazpenaren printzipioak (lengoaia kodetuak eta ez kodetuak). Gorputza ezagutzea eta gorputzaz jabetzea.

Prestakuntza fisikoa eta entrenamendua.

Osaera formala eta mugimenduaren esanahia.

Dantza eta koreografia.

Gorputza, tresna sortzaile gisa hartuta.

Gorputzaren prestakuntza integratua, interpretazio-lanaren euskarri den aldetik.

Zentzumenaren, keinuen, mugimenduaren eta desplazamenduaren azterketa.

Erritmoaren azterketa, espresio-bide gisa hartuta.

Dantzaren hizkuntzaren berezko tresnen hastapenak, antzezpenean eta konposizio koreografikoan.

Komunikazio- eta adierazpen-printzipioak eta -tresnak, sorkuntza indibiduala eta kolektiboa posible egiten dutenak.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Lokomozio-aparatuaren ezagutza anatomiko-fisiologikoa bereganatzea.

– Gorputzaz jabetzeko, gorputza kokatzeko eta gorputza espazioan kokatzeaz jabetzeko kontzientzia garatzea.

– Mugimendua eta horren adierazpen-ahalmena aztertzea: mugimendu motak eta erritmoa adierazpen-elementu gisa.

– Gorputzaren, mugimenduaren, keinuen eta ekintza fisikoaren adierazpen-kontrola helburu duten mugimendu-teknikak bereganatzea.

– Inprobisazio-, konposaketa- eta interpretazio-ariketak egitea, mugimenduaren bitartez.

– Gorputz-adierazpeneko hizkuntzaren printzipio teknikoak eta adierazpen-printzipio berezkoak ezagutzea eta interpretazio-lanean aplikatzea.

– Proposamen eszenikoak, indibidualak eta kolektiboak egitea, komunikatzeko helburuarekin.

– Dantzako oinarrizko teknikak eta dantza akademiko eta garaikidearen mugimenduaren printzipioak ezagutu eta praktikatzea.

– Mugitzeko arintasuna garatzea, eta erritmoa, fraseatzea, musikaltasuna, dinamika, intentzioa eta espazioan mugitzeko gaitasuna bereganatzea.

– Mugimendua eszenaratzea osatzen duten gainerako hizkuntzekin bateratzea.

– Pertsonaia eta ekintza dramatikoa koreografian txertatu eta mantentzea.

Ebaluazio-irizpideak:

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Mugitzean, eskeletoaren eta muskulu-talde nagusien eginkizuna ezagutzea.

– Arnasa, muskuluen desblokeoa eta gorputzaren prestasuna kontrolatzea, mugimendu-ariketak egiteko.

– Ariketa fisikoak egiterakoan, gorputz-jarrera zuzena eta segurua hartzea, mugimenduen autokontrola erakutsiz.

– Proposatutako ariketak egiteko eskatzen diren trebetasun fisikoa eta koordinatzeko ahalmena menderatzen direla erakustea.

– Gorputzaren balio espresiboa eta horren erabilera ezagutzea, eszenaren berezko komunikazio-prozesuetan.

– Presentzia psikofisikoa modu espresiboan eta komunikatiboan erabiltzea.

– Gorputz-adierazpeneko hizkuntzaren printzipio teknikoak eta adierazpen-printzipio berezkoak ezagutzea eta interpretazio-lanean aplikatzea.

– Inprobisazio-ariketa praktikoak egitea, emandako jarraibideei jarraituz, gorputzaren kontrola eta adierazpen-gaitasuna erakutsiz.

– Gorputz-kreazio indibidualak zein taldekoak erakustea, non ingurune edo egoera desberdinak islatuko diren, bereganatutako ezagutzak eta ikuskizunaren parte diren beste hizkuntza batzuk erabiliz.

– Dantza akademiko eta garaikidearen oinarrizko pausuak eta hiztegi teknikoa ezagutzea, eta antzerki-eszenan erabiltzea.

– Dantzako mugimenduak arintasunez, erritmo-zentzuaz eta musikaltasunez egitea.

– Buruz ikastea estilo desberdinetako lan koreografikoak.

– Pertsonaia ekintza koreografikoan txertatu eta mantentzea, ahotsa eta keinuak mugimenduaren dramaturgiara ekarriz.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Antzerki Fisikoa (II)

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 6

Deskribatzaileak:

– Keinuak interpretatzearen ikuspegitik, egoera, ekintza eta pertsonaia sortzeko eta garatzeko tekniketan sakontzea.

– Entrenamendu psiko-fisikoan sakontzea.

– Gorputz-segmentazioko eta -artikulazioko teknikak.

– Sorkuntzan oinarritutako antzerkia egitea erraztuko duten hizkuntzen bilaketan sakontzea, bizitzaren behaketatik abiatuta.

– Irudimena estimulatzea, barneko mundu propioa erakutsiz, aurreiritziak eta inhibizioak ezabatu eta maskara neutro, mimo eta pantomimako lanaren berezko bihozberatasun eta babesgabetasunez agertzea.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Interpretazioaren aurreadierazpen-teknikak eta oinarrizko printzipio psiko-fisikoak ezagutu eta horietan sakontzea, mugimendutik eta inprobisazioaren oinarriko legeetatik eta jolas eszenikotik, mimotik eta pantomimatik abiatuta.

– Buru- eta gorputz-malgutasuna, entzute aktiboa eta erantzun-gaitasuna garatzea, jolas dramatikoaren bitartez.

– Inprobisazioaren tekniketan trebatzea, norberaren pertzepzioan eta emozioak transmititzeko gaitasunean sakontzeko.

– Keinu bidezko antzerkian antzezpeneko prozedura eta teknika desberdinak ezagutu eta menderatzea.

– Aktore-lanaren oinarriak ezagutzea, esperimentazio pertsonalaren eta praktika kolektiboaren bitartez.

– Entrenamendu psiko-fisikoaren oinarrietan, akzio-partiturak egiten, jolas eszenikoan eta inprobisazioan trebatzea.

– Aktorearen barne-prozesuetan sakontzea, keinu-antzerkiaren bitartez.

– Haren nortasun sortzaileaz jabetu eta hura sustatzea.

– Irudimena eta adierazpen-baliabideak garatzea, mugimendua eta pertsonaiaren hizkuntza sortzeko.

– Testua, ekintza eta pertsonaia aztertu eta poetika eta drama-proposamen desberdinetan sartzea.

– Mimoaren eta pantomimaren oinarriak ezagutzea.

– Mimoaren teknika aztertzea, gogo-aldarteari, emozioei eta sentimenduei dagokienez.

– Mimoa eta ametsezko pantomima erlazionatzea maskarak erabiliz egiten den aktore-lanarekin.

Entrenamenduan eta eszenan, maskararen adierazpen-erabileran trebatzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Zorrotz aztertzea interpretazio eszeniko eta ikus-entzunezkoaren oinarrien gaineko testu teoriko garrantzitsuenak.

– Antzezte-korronteak identifikatzea, eta erlazionatzea sortzen direneko baldintza soziokulturalekin eta oinarritzen direneko arte dramatikoaren gaineko teoriekin.

– Entrenamendu psiko-fisikoaren jarraibide indibidualak eta taldekoak bereganatu eta ikaste- eta antzezpen-prozesuko hainbat unetan erabiltzea.

– Izaera desberdin eta konplexutasuneko ariketa, inprobisazio eta egoera dramatikoetan modu organikoan antzeztu eta komunikatzea.

– Inprobisazioaren teknikak menderatzea, norberaren pertzepzioan eta emozioak transmititzeko gaitasunean sakontzeko mimoaren, pantomimaren eta maskara neutroaren teknikak erabiliz.

– Aktore-lanerako metodoak ezagutu eta aplikatzea, ekintza fisikoetatik eta azterketa-, osaera-, bizipen- eta antzezpen-prozedura desberdinetatik abiatuta.

– Mimoaren eta pantomimaren oinarriak ezagutu eta trebetasunez erabiltzea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera

proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Interpretazioa (II)

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 8

Deskribatzaileak:

Interpretazioa irakasgaiak aktore-teknikak eta pertsonaia sortu eta eraikitzeko metodoak ikasi, ezagutu eta esperimentatzeari ekiten dio.

Teknika desberdinak erabiltzea egoera, ekintza eta pertsonaia eraikitzeko eta garatzeko.

Testuinguru dramaturgiko eta eszenikoetan erabiltzea.

Aktorearen adierazpen-baliabideak eta barne-prozesuak egokitzea erabiltzen den sistema bakoitzaren eskakizunetara.

Genero, estilo eta bitartekoetara –ikus-entzunezkoa barne– egokitzea baliabideak.

Gorputzaren, energiaren eta grabitatearen arteko erlazioa. Entrenamendu psiko-fisikoa.

Gorputz-segmentazioko eta -artikulazioko teknikak.

Sorkuntzan oinarritutako antzerkia egitea erraztuko duten hizkuntzak bilatzea, bizitzaren beha-ketatik abiatuta.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Interpretazioaren aurreadierazpen-teknikak eta oinarrizko printzipio psiko-fisikoak ezagutzea, mugimendutik eta inprobisazioaren oinarriko legeetatik eta jolas eszenikotik abiatuta.

– Buru- eta gorputz-malgutasuna, entzute aktiboa eta erantzun-gaitasuna garatzea, jolas drama-tikoaren bitartez.

– Inprobisazioaren teknikak ezagutzea, norberaren pertzepzioan eta emozioak transmititzeko gaitasunean sakontzeko.

– Antzezpeneko prozedura eta teknika desberdinak ezagutu eta menderatzea testu-antzerkian.

– Aktore-lanaren oinarriak ezagutzea, esperimentazio pertsonalaren, praktika kolektiboaren eta azterketa teorikoaren bitartez.

– Entrenamendu psiko-fisikoaren oinarrietan, akzio-partiturak egiten, jolas eszenikoan, inpro-bisazioan eta entseguan eta testu-interpretazioan trebatzea.

– aktore-azterketako prozedurak egoera dramatikoari eta pertsonaiari aplikatzea.

– Haren nortasun sortzaileaz jabetu eta hura sustatzea.

– Irudimena eta adierazpen-baliabideak garatzea (gorputza/ahotsa) mugimendua eta pertsonaiaren hizkuntza sortzeko.

– Testua, ekintza eta pertsonaia aztertu eta poetika eta drama-proposamen desberdinetan sartzea.

– Ekintza fisikoen metodoa eta beste azterketa-, osaera-, bizipen- eta antzezpen-prozedura batzuk ezagutu eta erabiltzea, autoezagutzatik, behaketatik, azterketatik, imitaziotik eta tipologia-integraziotik.

– Sorkuntza koreografikoaren eta eszenikoaren sorkuntza mota berriak ezagutu eta probatzea, interpretazioaren eta dantzaren ikuspegia zabalduko duten diziplina artistiko desberdinak bilatuz, beraren diskurtso formalean ahotsa, gorputza eta mugimendua eskatzen duen hizkuntza eta praktika artistikoa den aldetik.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Zorrotz aztertzea interpretazio eszeniko eta ikus-entzunezkoaren oinarrien gaineko testu teoriko garrantzitsuenak.

– Entrenamendu psiko-fisikoaren jarraibide indibidualak eta taldekoak bereganatu eta ikaste- eta antzezpen-prozesuko hainbat unetan erabiltzea.

– Izaera desberdin eta konplexutasuneko ariketa, inprobisazio eta egoera dramatikoetan modu organikoan antzeztu eta komunikatzea.

– Inprobisazioaren teknikak menderatzea, norberaren pertzepzioan eta emozioak transmititzeko gaitasunean sakontzeko.

– Aktore-lanerako metodoak ezagutu eta aplikatzea, ekintza fisikoetatik eta azterketa-, osaera-, bizipen- eta antzezpen-prozedura desberdinetatik abiatuta.

– Garai eta estilo desberdinetako testuetan agertzen diren eszenatako gatazka dramatikoak aztertzea.

– Pertsonaia karakterizatzeko teknika ezagutu eta probatzea norberaren ezagutzatik, behaketatik, azterketatik, imitaziotik, analogietatik eta tipologia-integraziotik.

– Antzekotasunak, aldeak eta egokitzapen teknikoak ezagutu eta probatzea, genero, garai eta estiloen arabera.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Antzezte-adierazpen Garaikideen Tailerra

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

Proposamen kontzeptual eta eszeniko esanguratsuenen azterketa, XX. mendeko azken herenetik gaurdaino.

Egile eta lan garrantzitsuenak.

Indarraldia eta hizkuntza eszenikoak berritzean duen eragina baloratzea.

Korronte horien ekarpen tekniko eta estetikoen ezagutza.

Aktorearen adierazpen-baliabideak eszena eta pertsonaia garaikidera egokitzea.

Aktore-lanaren, eta irudiak proiektatzearen eta beste adierazpen-baliabide ez konbentzional batzuen interakzioa.

Performance-a, sorkuntzan oinarritutako antzerkia eta hizkuntza eszeniko berri garaikideak.

Ikerketa-laneko proposamen praktikoa.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Hizkuntza eszeniko garaikidearen printzipioak eta sorkuntza-prozesuak ezagutu eta aztertzea, ikuspegi metodologiko desberdinetatik abiatuta: semiotikoak, estetikoak, soziologikoak edo antropologikoak.

– Sorkuntza garaikideko lan-metodoak ezagutu eta probatzea, sorkuntza kolektibo metodoei arreta berezia eskainiz.

– Ikerketa-gaitasunak garatzea, ikuskizun-arteei eta prozesu sortzaileei dagokienez.

– Euskal Herriko abangoardiako adierazpenak identifikatu eta beste leku batzuetako egile eta sortzaileen dramaturgiekin erlazionatzea.

– Lan garaikideko tailer praktikoa.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Proposamen eszeniko eta narratibo garaikideen azterketari dagokionez, ideiak eta argudioak era arrazoituan eta kritikoan garatzea.

– Informazio garrantzitsua bildu, aztertu, laburbildu eta egoki kudeatzea.

– Dramaturgia garaikideen ezaugarriak ezagutzea, horien sortzaile nagusiak eta ekarpen estetiko, etiko eta humanistikoak.

– Eszena garaikidearen estetika eta narratiba beste arte-hizkuntza batzuekin erlazionatzea.

– Ikasgai desberdinetan landutako ezagutzak eta teknikak txertatu eta antzerki garaikideko lan dramatikoen eszenaratzean erabiltzea.

– Proposamen dramatikoak egitea, antzezpenerako bereziki ez sortutako testu-, ikus-material, edo beste edozein izaeratako materialetatik abiatuta.

– Ezagutu eta interpretearen sorkuntza-lanari aplikatzea sorkuntza-antzerkian eta beste adierazpen performatibo batzuetan maiz erabiltzen diren teknologien adierazpen-aukerak (soinua, argia, ikus-entzunezkoak).

– Talde batean integratu eta ekarpen esanguratsuak egitea lan garaikide baten eszenaratze-prozesu konplexu bat egitera bideratutako lan kolektibo batean.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta gai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Diziplinarteko Proiektuen Laborategia (I)

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 6

Deskribatzaileak:

Diziplinarteko Proiektuen Laborategiak (I eta II) proiektu irekiak dira, edukiei zein metodologiei dagokienez, eta ikastetxeak ikastetxetik kanpoko irakasleei ematen die horien ardura, lauhileko batean gara ditzaten. Irakasle horiek eszenako profesional gailenak izaten dira. Hezkuntza-maila honetan ikasten ari diren Arte Dramatiko, Dantza eta Eszenotekniako espezialitate desberdinetatik datozen ikasleak hartzen ditu proiektu bakoitzak. Ikasle guztiak hartzeko behar diren adina laborategi antolatzen dira urtero, landutako proiektuen izaera eta beharren arabera.

Laborategien helburuak honako hauek dira:

– Loturak sortzea arte-diziplina eta -praktiken artean.

– Aztertutako ikasgaiak bateratzea.

– Tailer monografiko batean egitea horien aplikazio praktikoa. Tailer horretan, sorkuntzaren prozesu globalaren konplexutasunari ekingo zaio, prestakuntzako ezagutza-arlo desberdinetako zeharkakotasuna hartuko da aintzat, eta arte-espezialitate eta -hizkuntza desberdinak integratzearen alde egingo da.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Aztertutako ikasgaiak bateratu eta erabiltzeko.

– Interpretazio-teknika desberdinak bateratu eta tailer bateko praktika eszenikoan erabiltzeko.

– Dagoeneko existitzen den lan bat lantzen bada, testu- edo gidoi-egilearen ezaugarri espezifikoak eta haren lanaren gako estetikoak ezagutzeko.

– Sortzen ari diren praktika artistikoak ezagutu eta aztertzeko, eta gertakari eszeniko garaikidearekiko haien erlazioa eta aplikazioa esperimentatzeko, joera teoriko eta kontzeptualak zein prozedurakoak eta esperimentalak inplikatuz.

– Aktorearen ikuspegitik, lana eta papera aztertzeko teknika dramaturgiko desberdinak erabiltzeko.

– Hizkuntza eszenikoaren elementu desberdinak ezagutu eta bateratzeko: eszenografia, jantziak, argiztapena.

– Pertsonaia sortzearen eta eszenan ezartzearen ikuspegiak erabiltzeko, proposatutako poetika eszenikoaren esparruan.

– Mugimendua sortzean eta testua organikoki gehitzean garatutako adierazpen-baliabideak (gorputza(ahotsa) ezagutu eta erabiltzeko.

– Pentsamendua eta praktika eszenikoak berritzeari buruz, arte eszenikoetako artistekin eta profesionalekin egindako topaketa eta eztabaidetan parte hartzeko.

– Lan-teknikak eta -prozedurak bereganatzeko, ikerketa-ekintzaren testuinguruan.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Bereganatutako prozedurak, kontzeptuak eta ezagutzak lan-prozesuan eta antzezpenean erabiltzea, sorkuntza eszenikoaren sentsazioak, emozioak eta zentzua ikusleari transmititu ahal izateko.

– Praktika eszenikoetan parte hartzea jarrera arduratsu, sortzaile eta sentikorrez, agindutako lana zorrotz betez.

– Laneko jarraibide indibidualak eta taldekoak aplikatzea, egokiro integratuz diziplina anitzeko lan-talde batean.

– Laborategiko ikastaroaren maila akademikoari egokitutako gaitasuna adieraztea, interpretazioaren prozedura teknikoak erabiltzean, eta egoera, ekintza eta pertsonaia eraikitzean eta garatzean.

– Egindako eszenaratzeari dagozkion elementu testualak, koreografikoak, soinukoak, eszenografikoak eta abar identifikatu, aztertu eta justifikatzea.

– Egokiro erabiltzea terminologia eta eskatutako dokumentazio-baliabideak.

– Lortutako emaitzaren eta erabilitako lan-metodoaren balorazio kritikoa egitea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Ahotsa (II

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 5

Deskribatzaileak:

Erlaxazioa, arnasketa, gorputz-jarrera, soinu-ekoizpena, artikulazioa eta zuzenketa fonetikoa.

Fonazio-aparatuaren ezagutza anatomiko-fisiologikoa.

Ahotsa ezagutzea eta ahotsaz jabetzea.

Ahotsa prestatzea eta trebatzea.

Ahots-teknikaren alderdi guztiak menderatzea (arnasketa, erresonadoreak, artikulazioa, emisioa, eta abar).

Ahots-ekoizpenaren eta -emisioaren teoriak, praktikak eta erabilerak.

Gorputza, ahotsaren euskarri: anatomia, ahotsaren eta gorputzaren doikuntzak eta desdoikuntzak.

Soinu-sorkuntzaren estimulazioa.

Ahotsa, aktorearen tresna aktibo eta sortzailea.

Ahots-ekintzaren, ahoskeraren eta hizkuntzaren artikulazioaren erabilera (euskara/gaztelania).

Giza-ahotsaren funtzionamendua ezagutu, ulertu eta transmititzen jakitea, ikuspegi teoriko batetik: arnas aparatua, fonazio aparatua eta aparatu erresonadorea.

Fonazio-aparatuaren izaeraren eta norberaren ahotsaren ezagutzaren oinarri teoriko bat bereganatzea, ahots-praktikarako aurrebaldintza gisa.

Ahots-teknikaren alderdi guztiak garatzea: erlaxazioa, postura-jarrera, eta arnasketaren, artikulazio-mekanikaren eta soinu-ekoizpenaren erabilera zuzena.

Soinua ekoizteko prozesua ulertzea.

Ahots-emisioari lotutako ohitura ez osasungarriak ezagutu eta zuzentzea.

Gorputza trebatzea soinu onena bilatzeko, egoerek eskatutakoaren arabera.

Arnasketaren erabilera garatu eta sakontzea.

Erresonadoreak aurkitu eta elementu psiko-fisiko gisa erabiltzen jakitea, zientzia- zein sorkuntza-alorretik.

Ahozko hizkuntzaren musikaltasuna jartzea hitzetan.

Ahozko hizkuntzaren adierazkortasuna ikertu eta egokitzea, antzerki-estilo desberdinen eta horien eskakizunen arabera.

Ahots-teknikaren batera, adierazleen gardentasuna eta adierazien zehaztasuna batzea: horien elkarrenganako mendekotasunak eta berrelikadura.

Komunikazio-gaitasuna garatzea, hitzezko hizkuntzaren eta hitzik gabekoaren bitartez.

Ikasleak hizkuntzarekin duen harremana aztertzea, eta sormena sustatuko duten aldakuntzak eta aldaketak bilatzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Ahotsaren ekoizpenenean esku hartzen duten egitura anatomiko desberdinak ezagutu eta erabiltzea.

– Laringeko muskuluak nahita mugitzeko trebetasuna erakustea.

– Laringearen anatomia eta fisiologia ezagutzea, soinu-emaitzekin erlazionatuz.

– Fonazioan nahastutako mekanismoa identifikatu eta gorputzaren eta ahotsaren egoera bereiztea, ariketa bat egin aurretik, egitean eta egin ondoren.

– Ahots-beroketa egitea, baita trebetasuna lortzeko ariketa-taula bat ere, aktorearen beharrei erantzungo diona.

– Ahots-lana errazten duten erlaxazio-teknika (tentsio/distentsio) eta jarrera-sistema desberdinak ezagutzea.

– Arnasketa mota desberdinak ezagutu eta kontrolatzea: klabikularra, kostodiafragmatikoa, diafragmatikoa.

– Erresonadore desberdinak identifikatu, sentsibilizatu eta erabiltzea, jakineko ahots-kalitate eta tinbre-ezaugarri bat lortzeko.

– Landutako tinbreen substratu anatomiko-fisiologikoa ezagutzea.

– Emisioan, ahotsaren parametroak ondo identifikatu eta erabiltzea.

– Ahotsa ondo anplifikatu eta proiektatzea.

– Proiekzio-kontzeptua ezagutu eta aplikatzea, ez bakarrik ahotsari dagokionez, baita gorputzari eta interpretazioari dagokionez ere.

– Ahots-lanari ekitea, deshinibizioa, irudimena, adierazkortasuna, ikertzea eta harritzeko gaitasuna erraztuko duen ikuspegi ludiko batetik.

– Norberaren gaitasunak autoezagutzeko eta autorregulatzeko gaitasuna lortzea.

– Hitzik gabeko komunikazioaren elementuak identifikatzea.

– Entrenamendua landu, bideratu eta zuzentzea.

– Ahots aparatua zaintzeko programa bat aplikatzea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Musika eta Kantua (II

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 4

Deskribatzaileak:

Hizkuntza musikalaren oinarrizko elementuak eta musikaren printzipioak (erritmoa, melodia, harmonia, eta abar).

Hizkuntza musikala idazten eta irakurtzen hastea.

Musika, komunikatzeko eta arte-adierazpenak eta norberaren adierazpenak egiteko tresna.

Musikaren fenomenoa, interpretazioaren, azterketaren eta sorkuntzaren bidetik.

Printzipio musikalak eta forma aplikatzea, eta hori antzerki- eta eszena-fenomenoaren egungo eta historian zeharreko testuinguruan jartzea.

Ahots kantatuaren adierazpen-teknikak aztertzea.

Kantuaren teknika- eta interpretazio-alderdien oinarrizko trebakuntza, talde-lanaren bidezkoa.

Koru-kantuko teoriaren eta praktikaren hastapenak.

Ahots kantatuko teknikaren hastapenak.

Tinbrearen ezaugarrietara eta ematen dituen aukeretara hurbiltzea, norberaren ahotsaren malgutasuna eta adierazpen-ezaugarriak.

Fonetikari buruzko ikasketen eta testu kantatuaren ahoskeraren hastapenak.

Antzerki musikalaren genero desberdinen ezagutza.

Kantuaren teknika genero eta estilo desberdinetan erabiltzea.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Entzumen-, erritmo- eta melodia-gaitasunak garatzea, hizkuntza musikalaren elementuen ezagutza praktiko eta teorikoaren bitartez.

– Printzipio musikalak (erritmoa, melodia, harmonia eta abar) eta diziplina eszeniko desberdinekin (interpretazioa, eszenifikazioa, dantza) duten erlazioa ezagutzea, eta, printzipio horiek diziplina eszeniko desberdin horietan aplikatzea.

– Fenomeno musikala ulertzea, azterketa-, sortze- eta interpretazio-prozeduren bitartez.

– Egitura musikal eta soinudun bat ulertzea ahalbidetuko duten hizkuntza musikal eta soinudun desberdinen oinarriak ezagutzea, dramaturgiara eta eszenifikaziora eta interpretazio eta konposaketa koreografikoetara aplikatzeko.

– Ahots kantatua emititzeko erabiltzen diren tresnak eta sistemak ezagutzea.

– Kantu-teknikaren oinarrizko elementuak garatzea: gorputzaren jarrera, arnasketa, erlaxazioa, fonazioa eta erresonantzia.

– Norberaren ahotsaren ezaugarriak ezagutzea.

– Ahots kantatuaren elementu teknikoak eta espresiokoak ezagutu eta erabiltzea, koru-moduan zein banaka aritzean.

– Oroimen musikala lantzea.

– Testu kantatuaren fonetika eta ahoskera ikasten hastea.

– Erritmo-, melodia- eta harmonia-printzipioak aplikatzea partitura sinpleen interpretazio dramatiko-musikalean.

– Kantuaren teknika eta adierazpena aplikatzea genero eta estilo desberdinetan.

– Pertsonaiaren interpretazioaren mugimendua eta keinuak ahots-adierazpen kantatuarekin fusionatzea, modu adierazgarrian.

– Kantatzeko eta dantzatzeko konposatutako musika-lanen ezaugarri espezifikoak ezagutzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Hizkuntza musikala adierazteko printzipioak ezagutzea.

– Partitura sinpleak taldean interpretatzea, belarri hezia, afinazioa eta erritmoa erakutsiz.

– Ezagutzea erritmoaren, melodiaren eta harmoniaren printzipioak, interpretazio dramatiko-musikalera aplikatuta.

– Diskurtso musikala artikulatzen duten kode eta ikur desberdinak identifikatzea (erritmoa, metrika, notazioa eta irakurketa) praktika erritmikotik eta mugimendutik abiatuta.

– Fonazio aparatuaren fisiologia ezagutzea, baita horren erabilera ere kantua praktikatzeko.

– Kantatzerakoan, ahots jarduera onena ahalbidetuko duen gorputz-jarrera eta arnasketa mantentzea.

– Ahotsaren beraren ezaugarriak eta posibilitateak ezagutu eta ondo erabiltzea, kantatutako musika-lanak interpretatzeko.

– Gai kantatuak interpretatzean, ahotsaren tinbrea eta modulazioa kontrolatzea.

– Kantuaren oinarrizko teknika ezagutu eta genero eta estilo estetiko desberdinetako konposizioen interpretazio espresiborako erabiltzea.

– Bakarkako kantuaren eta kantu koralaren teknika lantzea.

– Kantatutako gaiak hainbat hizkuntzatan interpretatzea, kasu bakoitzean fonetika eta dikzio egokiak erabiliz testua ulergarria gerta dadin.

– Kantua mugimenduarekin eta pertsonaia interpretatzeko gainerako osagaiekin bateratzea, betiere gainerako interpreteekin harmonian eta eszenaratzearen irizpide globalen arabera.

– Dramaturgian eta ikuskizun mota desberdinetako eszenifikazioan erabiltzen diren soinu-elementuak aztertzea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Karakterizazioa

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

Aktorearen gorputzak, aurpegiak eta jantziak emititzen dituzten zeinuak ezagutu eta aztertzeko behar diren tresnak menderatzea, pertsonaiaren eskakizunen arabera egokitzeko edo aldatzeko.

Pertsonaiaren ezaugarrien azterketa testu dramatikoaren irakurketa oinarri hartuta, eta horren transposizioa pertsonaiaren gorputz- eta aurpegi-diseinura.

Aktorea pertsonaia bilakatzeko prozesuaren diseinua eta garapena.

Antzerki-makillajeko teknikaren eta pertsonaiaren itxuran parte hartzen duten elementu plastikoen azterketa teoriko-praktikoa.

Portaeraren ezagutza eta karakterizazio-lanetan aplikatzen diren materialen erabilera.

Maskarak eta protesiak egiteko sistemen azterketa teoriko-praktikoa.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Karakterizazioaren printzipio orokorrak eta horiek ikuskizun mota desberdinetan nola aplikatu ezagutzea.

– Karakterizazioa sortzeko prozesua aztertu eta ulertzea.

– Testu dramatikoko pertsonaiaren ezaugarriak horren gorputzaren eta aurpegiaren diseinura eramatea.

– Aktorea pertsonaia bilakatzeko prozesua diseinatu eta garatzea.

– Aurpegiera aldatzea makillajearen teknika erabiliz, pertsonaiaren ezaugarrietara egokitzeko.

– Maskarak eta protesiak egiteko prozesuak ezagutzea.

– Aurpegiko eta gorputzeko deformazioak aztertzea.

– Protesiak eta maskarak sartzea pertsonaia sortzeko prozesuan eta antzezpenean.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Gizaki mota desberdinen hazpegiak behatu eta hartzea, eta ezaugarri fisiko edo soziokulturalen arabera bereiztea.

– Norberaren gorputzaren eta aurpegiaren egitura pertsonaiaren hazpegi idealekin alderatzea.

– Karakterizazioa –komunikazio bisual eta plastiko bezala ulertuta– beste diziplina artistiko batzuekin erlazionatzea: pintura, eskultura, argazkigintza eta zinema.

– Irudiak euskarri desberdinetan aztertzea, pertsonaiaren diseinuak eskatzen dituen zeinu plastiko eta estetikoak ateratzeko.

– Makillajean erabiltzen diren materialak eta tresnak ezagutu eta erabiltzea.

– Garai historiko desberdinetako eta pertsonaia arketipikoen makillaje-estiloak praktikan jartzea, eta haien orrazkerak ezagutzea.

– Makillajearen ondorio estetikoak identifikatu eta erabiltzea, pertsonaiaren eskakizunetara egokitu eta horren arabera norberaren hazpegiak aldatzeko.

– Eszenaratzearen estiloaren arabera egitea pertsonaien karakterizazioa.

– Makillajea erabiltzean, higiene-neurri egokiak eta osasunerako arriskuak prebenitzeko neurriak ezagutu eta hartzea.

– Argiztapenak makillajearen gainean dituen efektuak identifikatzea.

– Maskarak eta protesiak egiteko oinarrizko teknikak ezagutu eta erabiltzea.

– Horiek egoki txertatzea pertsonaia antzeztean.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Antzezte-proiektuen Ekoizpena eta Kudeaketa. Ekintzailetza I

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

Ikuskizun-arteen legedia (merkataritza- administrazio- eta lan-araudiak).

Ekoizpen-proiektu bat egiteko prozesuaren hastapenak, komunikazioaren, ekonomiaren eta teknikaren ikuspuntutik.

Artistaren banakako zein taldeko lan-aukeren hastapen teorikoak.

Ikuskizunaren arteen legediaren gaineko ezagutzen hastapenak (merkataritza- administrazio- eta lan-araudiak).

Dagoeneko merkatuan existitzen duen proiektu baten azterketa, komunikazioaren, artearen eta ekonomiaren ikuspuntuetatik.

Arte-merkatuaren ezagutza orokorra, dantza- eta antzerki-konpainien kudeaketa- eta ekoizpen-prozesuan parte hartzen duten agenteak.

Ikus-entzunezkoen, zinemaren eta telebistaren merkatuaren ezagutza orokorrak.

Konpetentziak:

Ikuskizunaren arteen gaineko legedian indarrean dagoen araudia eta horren eboluzioa ezagutu eta aztertzea.

Ikuskizunaren arteen lana aztertzea, esparru sozio-laboralari dagokionez. Antzerki-ekoizpeneko proiektu bat lantzeko prozesua aztertzea, kudeaketaren ikuspuntutik.

Aukerak sortzea, Arte Dramatiko eta Dantzako etorkizuneko graduatuek lan-mundura sarbidea izan dezaten.

Bide tradizional eta online bide desberdinak ezagutzea, lan-mundura sarbidea izateko.

Arte-prozesuetarako, dantza edo antzerki konpainientzako eta artistentzako –indibidualki hartuta– finantzazio-bide instituzional eta pribatuak ezagutzea.

Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak aitortzea eta aintzat hartzea, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzea.

Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratzea, arte-jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizun bezala.

Aztertzea arte- eta kultura-sektoreko enpresa txiki edo ertain batean enplegatutako pertsona batek lanean duen ekimen-gaitasuna, kudeaketaren alorrean eta asoziazionismoan eman beharreko lehen urratsen ezagutza-jarraibideak eta enpresa-prestakuntzakoak.

Antzerki- edo dantza-konpainia txiki bat edo kultura-elkarte edo -enpresa bat sortzeko aukera definitzea, betiere aintzat hartuta bideragarritasun-plan bat etaEAEko, Espainiako eta Europako antzerki-industrian dauden finantzazio-bideak.

Antzerki- edo dantza-konpainia baten bideragarritasun-proiektu bat aztertzea, EAEko ingurunea eta egoera espezifikoa aintzat hartuta.

Antzerki-konpainia txiki baten irudi korporatiboa definitzea bideragarritasun-plan bati dagokionez, deskribapenen, marrazkien eta beste teknika grafiko batzuen bitartez.

Ikuskizun baten dossierra aztertzea.

Ekintzailetzarako oinarrien hastapenak, dagoeneko martxan dagoen antzerki-konpainia batera edo dagoeneko hasita dauden dantza-proiektuetara, arte-adierazpenetara oro har, telebistara, zinemara edo beste proiektu artistiko batzuetara sartzea nahi duen aktorearen ikuspuntutik, edo, hirugarren batzuek egindako ikuskizunak banatzeko.

On line merkaturatzeko tresnen aurkezpena eta azterketa. Web orriak. Argazki-liburuak eta bideo grafikoak online. Online banaketaren aukerak aztertzea. Sare sozialak, banaketa-aukera gisa hartuta. Casting edo entzunaldietan parte hartzeko dagoeneko existitzen duen proposamen bat aztertu eta definitzea.

Ebaluazio-irizpideak:

Ikasleak egin beharrekoak:

– Ikuskizunaren arteen gaineko legedian indarrean dagoen araudia eta haren eboluzio historikoa ezagutzen ditu.

– Arte eszenikoen merkatuaren ezaugarri espezifikoak ezagutu: ikuskizunen ekoizpena eta demanda, publiko motak, marketin eszenikoa, etab.

– Interpretearen irteera profesionalak eta enplegua bilatzeko estrategia proaktiboak ezagutu, eta jakin nola eta ze eratan aurkeztu entzunaldi batera eta nola erabili tresna grafikoak eta online tresnak, beraren sustapen proaktiborako.

– Ikuskizun eszenikoaren kudeaketa-antolaketan parte hartzen duten elementuak identifikatu.

– Euskal Autonomia Erkidegoan eta Europan, ikuskizun eszenikoen ekoizpenean, banaketan eta erakusketan parte hartzen duten agente eta zirkuitu nagusiak identifikatu.

– Administrazio desberdinetako arte eszenikoetara bideratutako laguntzen arauketak ezagutzen ditu, baita laguntza eta mezenasgo pribatuak eta ikuskizun eszenikoak finantzatzeko beste modu batzuk ere.

– Ezagutzen ditu aktoreek lan egiten duten arte eszeniko eta ikus-entzunezkoen sektore desberdinen lan-esparrua eta sektore horietan indarrean dauden lan-hitzarmenak. Ezagutzen ditu, baita ere, Europako legedia eta ekoizpen eszenikoei aplikatu ahal zaizkien lankidetza- eta nazioartekotze-programak.

– Ezagutzen ditu ekoizpen eszenikoen komunikazioari eta merkaturatzeari aplikatu ahal zaizkien marketinaren eta publizitatearen oinarriak.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

HIRUGARREN KURTSOA

Irakasgaia: Hizkuntza eta Ikus-entzunezkoen Narratiba

Kurtsoa: 3

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

Ikus-entzunezko hizkuntzaren arauak ezagutzea komunikazioaren ingurunean.

Ikus-entzunezko hizkuntzaren hastapenak, hizkuntza eszenikoekin dituen analogiei eta desberdintasunei begiratuz.

Genero eta egitura narratiboak.

Ikus-entzunezko dramaturgia. Espazioa eta denbora ikus-entzunezko narrazioan. Muntaketa.

Eszenaratze zinematografikoa.

Hizkuntza zinematografikoaren eboluzioa, sortu zenetik gaurdaino.

Aktore-lana ikus-entzunezkoetan: espezifikotasuna eta eboluzio historikoa.

Korronte estetiko, sortzaile eta mugimendu zinematografiko nagusiak.

Telebistako fikzio-programen ezaugarriak.

Ikus-entzunezko hizkuntzaren formatu berriak. Teknologia digitalaren eragina.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Ikus-entzunezko komunikazioaren oinarrizko printzipioak ulertzea.

– Ikus-entzunezko hizkuntza osatzen duten elementuen garrantzia, eginkizunak eta ondorioak ezagutzea.

– Testu dramatikoaren eta ikus-entzunezko gidoiaren arteko antzekotasunak eta aldeak aztertzea.

– Ikus-entzunezko hizkuntza antzerki-hizkuntzarekin eta beste narratiba eszeniko batzuekin erlazionatzea, horien analogiak eta berezitasunak ezagutuz.

– Ikus-entzunezko hizkuntzak historian zehar izan duen eboluzioa ezagutzea, bere barruko eboluzioari dagokionez zein beste mugimendu artistiko batzuekin alderatuta.

– Identifikatzea sortzaile zinematografikoen lana eta hori kokatzen deneko mugimendu ideologiko eta estetikoak.

– Telebistako fikzio-programen ezaugarri nagusiak eta generoak identifikatzea.

– Ikus-entzunezkoetako eta eszenako interpretazio-tekniken arteko aldeak eta analogiak ezartzea.

– Antzerki-egokitzapenak pantailara eramateak dakarren hizkuntza-aldaketa identifikatzea.

– Ikus-entzunezko narratibako ariketa praktikoak egitea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Ikus-entzunezko hizkuntzak oinarri hartzen dituen printzipioak ulertzea, antzerki-hizkuntzarekin alderatuta.

– Ikus-entzunezko diskurtso batean parte hartzen duten elementuak eta lan zinematografiko bateko osagaiak ezagutzea.

– Ikus-entzunezko lanak hizkuntzaren ikuspegitik aztertu eta bereiztea, horietan parte hartzen duten elementuak bereiziz.

– Ikus-entzunezko kulturaren emanaldiak modu arrazoituan eta kritikoan aztertzea.

– Egile esanguratsuenen filmografia ezagutu eta ordezkatzen dituzten korronte artistikoen esparruan kokatzen ditu.

– Ikus-entzunezko hizkuntzaren eboluzio historikoa eta osaera jarraitua ezagutzea.

– Ezagutzen ditu zinemako eta telebistako ikus-entzunezko ekoizpen-prozesuaren faseak.

– Telebistako fikzio-programa mota desberdinen ezaugarriak eta espezifikotasunak aztertu ditu, arreta berezia jarriz aktoreek egin duten lanaren gainean.

– Ikus-entzunezko gidoien oinarrizko proposamenak eta proposamen horiek gauzatzeko behar den plangintza egin ditu.

– Antzerki-lanak hizkuntzaren ikuspegitik egokitzen dituzten ikus-entzunezko lanak aztertzea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Dantzari eta Mugimenduari buruzko Analisia eta Teknikak (III)

Kurtsoa: 3

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

Lokomozio-aparatuaren ezagutza anatomiko-fisiologikoa.

Hitzik gabeko komunikazioaren eta adierazpenaren printzipioak (lengoaia kodetuak eta ez kodetuak). Gorputza ezagutzea eta gorputzaz jabetzea.

Prestakuntza fisikoa eta entrenamendua.

Osaera formala eta mugimenduaren esanahia.

Dantza eta koreografia.

Gorputza, tresna sortzaile gisa hartuta.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Lokomozio-aparatuaren ezagutza anatomiko-fisiologikoa bereganatzea.

– Gorputzaz jabetzeko, gorputza kokatzeko eta gorputza espazioan kokatzeaz jabetzeko kontzientzia garatzea.

– Mugimendua eta horren adierazpen-ahalmena aztertzea: mugimendu motak eta erritmoa adierazpen-elementu gisa.

– Gorputzaren, mugimenduaren, keinuen eta ekintza fisikoaren adierazpen-kontrola helburu duten mugimendu-teknikak bereganatzea.

– Inprobisazio-, konposaketa- eta interpretazio-ariketak egitea, mugimenduaren bitartez.

– Gorputza osorik prestatzea, arrazoia eta emozioak elkartzeko gune eta interpretazio-lanaren euskarri gisa.

– Gorputz-adierazpeneko hizkuntzaren printzipio teknikoak eta adierazpen-printzipio berezkoak ezagutzea eta interpretazio-lanean aplikatzea.

– Proposamen eszenikoak, indibidualak eta kolektiboak egitea, komunikatzeko helburuarekin.

– Dantzako oinarrizko teknikak eta dantza akademiko eta garaikidearen mugimenduaren printzipioak ezagutu eta praktikatzea.

– Mugitzeko arintasuna garatzea, eta erritmoa, fraseatzea, musikaltasuna, dinamika, intentzioa eta espazioan mugitzeko gaitasuna bereganatzea.

– Mugimendua eszenaratzea osatzen duten gainerako hizkuntzekin bateratzea.

– Pertsonaia eta ekintza dramatikoa koreografian bateratu eta mantentzea.

– Oinarrizko trebetasun gimnastikoak eta akrobatikoak ezagutu eta praktikan jartzen ditu.

– Objektuak gehitzea mugimendura, elementu sortzaile eta motibatzaile modura.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Mugitzean, eskeletoaren eta muskulu-talde nagusien eginkizuna ezagutzea.

– Arnasa, muskuluen desblokeoa eta gorputzaren prestasuna kontrolatzea, mugimendu-ariketak egiteko.

– Ariketa fisikoak egiterakoan, gorputz-jarrera zuzena eta segurua hartzea, mugimenduen autokontrola erakutsiz.

– Proposatutako ariketak egiteko eskatzen diren trebetasun fisikoa eta koordinatzeko ahalmena menderatzen direla erakustea.

– Gorputzaren balio espresiboa eta horren erabilera ezagutzea, eszenaren berezko komunikazio-prozesuetan.

– Presentzia psikofisikoa modu espresiboan eta komunikatiboan erabiltzea.

– Gorputz-adierazpeneko hizkuntzaren printzipio teknikoak eta adierazpen-printzipio berezkoak ezagutzea eta interpretazio-lanean aplikatzea.

– Inprobisazio-ariketa praktikoak egitea, emandako jarraibideei jarraituz, gorputzaren kontrola eta adierazpen-gaitasuna erakutsiz.

– Gorputz-kreazio indibidualak zein taldekoak erakustea, non ingurune edo egoera desberdinak islatuko diren, bereganatutako ezagutzak eta ikuskizunaren parte diren beste hizkuntza batzuk erabiliz.

– Dantza akademiko eta garaikidearen oinarrizko pausuak eta hiztegi teknikoa ezagutzea, eta antzerki-eszenan erabiltzea.

– Dantzako mugimenduak arintasunez, erritmo-zentzuaz eta musikaltasunez egitea.

– Buruz ikastea estilo desberdinetako lan koreografikoak.

– Pertsonaia ekintza koreografikoan sartu eta mantentzea, ahotsa eta keinuak mugimenduaren dramaturgiara ekarriz.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Akrobazia eta Zirkuko Teknikak (I)

Kurtsoa: 3

Kreditu kop.: 4

Deskribatzaileak:

Akrobazia eta zirkuko teknikatarako prestakuntza fisikoa eta entrenamendua.

Lokomozio-aparatuaren ezagutza anatomiko-fisiologikoa.

Gorputza ezagutzea eta gorputzaz jabetzea.

Mugimenduaren osaera formal eta esanahiaren hastapenak.

Gorputza, tresna sortzaile gisa hartuta.

Zentzumenaren. keinuen, mugimenduaren eta desplazamenduaren azterketa.

Erritmoaren azterketa, espresio-bide gisa hartuta.

Akrobaziarako konposizio koreografikoaren hastapenak.

Komunikazio- eta adierazpen-printzipioak eta -tresnak, sorkuntza indibiduala eta kolektiboa posible egiten dutenak.

Akrobazia eta ikuskizun-borrokako teknikak eta praktikak.

Antzerki-zirkuaren eta kaleko arteen hastapenak.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Lokomozio-aparatuaren ezagutza anatomiko-fisiologikoa bereganatzea.

– Gorputzaz jabetzeko, gorputza kokatzeko eta gorputza espazioan kokatzeaz jabetzeko kontzientzia garatzea.

– Mugimendua eta horren adierazpen-ahalmena aztertzea: mugimendu motak eta erritmoa adierazpen-elementu gisa.

– Gorputzaren, mugimenduaren, keinuen eta ekintza fisikoaren adierazpen-kontrola helburu duten mugimendu-teknikak bereganatzea.

– Inprobisazio-, konposaketa- eta interpretazio-ariketak egitea, mugimenduaren bitartez.

– Gorputza osorik prestatzea, arrazoia eta emozioak elkartzeko gune eta interpretazio-lanaren euskarri gisa.

– Gorputz-adierazpeneko eta akrobaziaren hizkuntzaren printzipio teknikoak eta adierazpen-printzipio berezkoak ezagutzea eta interpretazio-lanean aplikatzea.

– Proposamen eszenikoak, indibidualak eta kolektiboak egitea, komunikatzeko helburuarekin.

– Oinarrizko trebetasun gimnastikoak eta akrobatikoak ezagutu eta praktikan jartzen ditu.

– Objektuak gehitzea mugimendura, elementu sortzaile eta motibatzaile modura.

– Ikuskizun-borrokako teknikak ezagutu eta erabiltzea, objektuekin zein objekturik gabe.

– Ariketa akrobatikoak eta ikuskizun-borrokako ariketak sartzea ekintza dramatikoan, ahozko ahotsa eta mugimendua osatuz interpretazioan.

– Mugimenduaren eta objektuak maneiatzearen ezagutzak eta teknika ezagutu eta antzerki-zirkuaren eta kaleko antzerkiaren ezaugarri partikularretan erabiltzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Proposatutako ariketak egiteko eskatzen diren trebetasun fisikoa eta koordinatzeko ahalmena menderatzen direla erakustea.

– Gorputzaren balio espresiboa eta horren erabilera ezagutzea, eszenaren berezko komunikazio-prozesuetan.

– Presentzia psikofisikoa modu espresiboan eta komunikatiboan erabiltzea.

– Inprobisazio-ariketa praktikoak egitea, emandako jarraibideei jarraituz, gorputzaren kontrola eta adierazpen-gaitasuna erakutsiz.

– Gorputz-kreazio indibidualak zein taldekoak erakustea, non ingurune edo egoera desberdinak islatuko diren, bereganatutako ezagutzak eta ikuskizunaren parte diren beste hizkuntza batzuk erabiliz.

– Ariketa akrobatikoak egitea, banaka zein taldean.

– Ikuskizun-borrokako ariketak eta keinuzko adierazpen-kodeak ezagutu eta praktikan jartzea.

– Arnasketa, erritmoa eta mugimendu harmonikoa koordinatzea ariketa akrobatikoak eta ikuskizun-borrokakoak egitean.

– Elementuak sinkronizatzeko eta maneiatzeko ariketak egitea.

– Solidaritate-, erantzukizun- eta lankidetza-balioak hartzea koreografia akrobatikoko eta ikuskizun-borrokako talde-ariketak egitean.

– Landutako hizkuntzak eszenaratzean txertatu eta aktore-lanean erabiltzea.

– Mugimenduaren eta objektuak maneiatzeko teknikak zirkuko eta kaleko ikuskizunaren ezaugarri partikular eta estetikoei aplikatzea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Artearen Komedia

Kurtsoa: 3

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

Teknika desberdinak erabiltzea egoera, ekintza eta pertsonaia eraikitzeko eta garatzeko, artearen komediari dagokionez.

Testuinguru dramaturgiko eta eszenikoetan erabiltzea.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Interpretazioaren aurreadierazpen-teknikak eta oinarrizko printzipio psiko-fisikoak ezagutzea, mugimendutik eta inprobisazioaren oinarriko legeetatik eta jolas eszenikotik abiatuta.

– Buru- eta gorputz-malgutasuna, entzute aktiboa eta erantzun-gaitasuna garatzea, jolas dramatikoaren bitartez.

– Inprobisazioaren teknikak ezagutzea, norberaren pertzepzioan eta emozioak transmititzeko gaitasunean sakontzeko.

– Interpretazio-sistema desberdinen printzipio teorikoak, estetikoak, etikoak eta humanistikoak ezagutu eta ikuskizun- eta antzezpen-bitarteko eta forma desberdinetan erabiltzea, baita ikus-entzunezkoetan ere.

– Testu- eta keinu-antzerki prozedura eta teknika desberdinak ezagutu eta menderatzea, artearen komediaren eta clown teknikei dagokienez.

– Aktore-lanaren oinarriak ezagutzea, esperimentazio pertsonalaren eta praktika kolektiboaren bitartez.

– Entrenamendu psiko-fisikoaren oinarrietan, akzio-partiturak egiten, jolas eszenikoan, inprobisazioan eta entseguan eta testu-interpretazioan trebatzea.

– aktore-azterketako prozedurak aplikatzea egoera dramatikoetan eta pertsonaiari dagokionez.

– Aktoreen barne-prozesuetan sakontzea.

– Haren nortasun sortzaileaz jabetu eta hura sustatzea.

– Irudimena eta adierazpen-baliabideak garatzea (gorputza/ahotsa) mugimendua eta pertsonaiaren hizkuntza sortzeko.

– Testua, ekintza eta pertsonaia aztertu eta poetika eta drama-proposamen desberdinetan sartzea.

– Ekintza fisikoen metodoa eta beste azterketa-, osaera-, bizipen- eta antzezpen-prozedura batzuk ezagutu eta erabiltzea, autoezagutzatik, behaketatik, azterketatik, imitaziotik eta tipologia-integraziotik.

– Gorputzaren mugimendu segmentatua eta koordinatua praktikan jartzen aritzea.

– Mimoaren teknika aztertzea, gogo-aldarteari, emozioei eta sentimenduei dagokienez.

– Maskara-bidezko aktore-lana praktikatzea.

– Maskararen adierazpen-erabileran trebatzea entrenamenduan eta eszenan.

– Maskarak erabiltzea Commedia dell'Arte-ko eszenatan.

– Clown eta bufoi garaikidearen berezitasun eszenikoak ezagutu eta praktikan jartzea.

– Sorkuntza koreografikoaren eta eszenikoaren sorkuntza mota berriak ezagutu eta probatzea, interpretazioaren eta dantzaren ikuspegia zabalduko duten diziplina artistiko desberdinak bilatuz, beraren diskurtso formalean gorputza eta mugimendua eskatzen duen hizkuntza eta praktika artistikoa den aldetik.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Zorrotz aztertzea interpretazio eszenikoko oinarrien gaineko testu teoriko garrantzitsuenak, eta, zehazki, artearen komediarekin zerikusia dutenak.

– Izaera desberdin eta konplexutasuneko ariketa, inprobisazio eta egoera dramatikoetan modu organikoan antzeztu eta komunikatzea.

– Inprobisazioaren teknikak menderatzea, norberaren pertzepzioan eta emozioak transmititzeko gaitasunean sakontzeko.

– Clown interpretazio-moduaren barregarritasuna, inozentzia eta oinarrizko emozioak gehitzea aktorearen berezko adierazpen-baliabideei.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna.

Irakasgaia: Clown-a

Kurtsoa: 3

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

Teknika desberdinak erabiltzea egoera, ekintza eta pertsonaia eraikitzeko eta garatzeko, aktoreentzako clown teknikatik abiatuta.

Testuinguru dramaturgiko eta eszenikoetan erabiltzea.

Sorkuntzan oinarritutako antzerkia egitea erraztuko duten hizkuntzak bilatzea, bizitzaren behaketatik abiatuta.

Irudimena estimulatzea, barneko mundu propioa erakutsiz, aurreiritziak eta inhibizioak ezabatu eta clown-aren berezko bihozberatasun eta babesgabetasunez agertzea.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Interpretazioaren aurreadierazpen-teknikak eta oinarrizko printzipio psiko-fisikoak ezagutzea, bufoi- eta clown-tekniketatik abiatuta. Baita inprobisazioaren eta jolas eszenikoaren oinarrizko legeak ere.

– Buru- eta gorputz-malgutasuna, entzute aktiboa eta erantzun-gaitasuna garatzea, jolas dramatikoaren bitartez.

– Inprobisazioaren teknikak ezagutzea, norberaren pertzepzioan eta emozioak transmititzeko gaitasunean sakontzeko.

– Antzezpeneko prozedura eta teknika desberdinak ezagutu eta menderatzea, clown teknikari dagokionez.

– Aktore-lanaren oinarriak ezagutzea, esperimentazio pertsonalaren eta praktika kolektiboaren bitartez.

– Entrenamendu psiko-fisikoaren oinarrietan, akzio-partiturak egiten, jolas eszenikoan, inprobisazioan eta entseguan trebatzea.

– Aktore-azterketako prozedurak aplikatzea egoera dramatikoetan eta pertsonaiari dagokionez.

– Aktoreen barne-prozesuetan sakontzea.

– Haren nortasun sortzaileaz jabetu eta hura sustatzea.

– Irudimena eta adierazpen-baliabideak garatzea (gorputza/ahotsa) mugimendua eta pertsonaiaren hizkuntza sortzeko.

– Testua, ekintza eta pertsonaia aztertu eta poetika eta drama-proposamen desberdinetan sartzea.

– Clown-aren teknika aztertzea, gogo-aldarteari, emozioei eta sentimenduei dagokienez.

– Clown eta bufoi garaikidearen berezitasun eszenikoak ezagutu eta praktikan jartzea.

– Sorkuntza koreografikoaren eta eszenikoaren forma berriak ezagutu eta praktikan jartzea.

– Inprobisazioa praktikatzea, bufoiaren eta clown-aren lanean oinarrituta.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Clown teknikan entrenamendu-jarraibide indibidualak eta taldekoak bereganatu eta ikaste- eta antzezpen-prozesuko hainbat unetan erabiltzea.

– Izaera desberdin eta konplexutasuneko ariketa, inprobisazio eta egoera dramatikoetan modu organikoan antzeztu eta komunikatzea.

– Inprobisazioaren teknikak menderatzea, norberaren pertzepzioan eta emozioak transmititzeko gaitasunean sakontzeko.

– Aktore-lanerako metodoak ezagutu eta aplikatzea, ekintza fisikoetatik eta azterketa-, osaera-, bizipen- eta antzezpen-prozedura desberdinetatik abiatuta.

– Pertsonaiaren karakterizazio-teknikak ezagutu eta probatzea.

– Clown interpretazio-moduaren barregarritasuna, inozentzia eta oinarrizko emozioak gehitzea aktorearen berezko adierazpen-baliabideei.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna.

Irakasgaia: Interpretazioa Ikus-entzunezkoan

Kurtsoa: 3

Kreditu kop.: 4

Deskribatzaileak:

Aktorearen adierazpen-baliabideak eta barne-prozesuak ikus-entzunezko eskakizunetara egokitzea.

Egoera, ekintza eta pertsonaia eraikitzeko eta garatzeko teknika desberdinak ikus-entzunezko hizkuntzari aplikatzea.

Aktore-lanaren eboluzioa ikus-entzunezkoetan. Eskola, estilo eta estetika nagusiak ezagutzea.

Kamera aurreko lana esperimentatzea, zinematografian zein telebistan.

Ikus-entzunezkoen esparruan laneratzeko prestatzea.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Genero desberdinetako sekuentziak aztertu eta interpretatzea, non eskuratutako interpretazio-baliabideak eta -prozedurak sartu, erabili eta egokitu diren ikus-entzunezkora (zinea eta telebista).

– Ahots- eta keinu-lana ikus-entzunezkora egokitzea.

– Ikus-entzunezko lan-metodologia espezifikoa erabiltzea.

– Erabilitako lan-metodologiaren eta horren ondorioen balorazio kritikoak egitea.

– Hizkuntza zinematografikoaren oinarriak ezagutu eta probatzea, aktoreen lanari dagokionez.

– Telebistako genero dramatiko desberdinak ezagutu eta horren espezifikotasunak esperimentatzea aktore-lanarekin alderatuta.

– Casting zinematografiko edo telebistako casting bat prestatu eta egiteko behar diren baliabideak garatzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Aurretik proposatutako lana arduraz prestatzea, testuak eta ekintzak buruz ikasiz adostutako denboran.

– Kontzentrazio- eta kaudimen-gaitasuna erakustea grabazio-prozesuan, norberaren eta lankideen lanarekiko errespetua adieraziz uneoro.

– Interpretazioaren oinarrizko arauak ezagutu eta aplikatzea, interpretazioa kamara bidez jasotzen denean.

– Pertsonaia eraikitzeko eta garatzeko teknikak aplikatzea ikus-entzunezkoei, antzeztu ahal izateko baliabide espezifikoak eskatzen dituzten genero eta estilo desberdinetan proposatutako eszenak antzeztearen bitartez.

– Apaltasunez, zehaztasunez, egiatasunez eta zintzotasunez aritzea kamaren aurrean, adierazpen-aberastasuna galdu gabe, ekintzak, pentsamenduak, emozioak, sentimenduak eta sentsazioak borborka sortzen utziz.

– Modu teoriko-praktiko batean aztertzea Ikus-entzunezko hizkuntza eta hizkuntzaren egokitzapena zinematografiara eta telebistara.

– Planoa eraikitzeko eta ikus-entzunezkoetan sekuentzia eraikitzeko oinarriak ezagutzea, baita horien eragina ere aktoreen lanean.

– Garai desberdinetan eta estiloetan hizkuntza horrek izan duen eboluzioa ezagutzea, aktoreen interpretazio-lanari dagokionez.

– Norberaren lanarekiko zentzu autokritikoa garatzea, eta hobetzeko eta zailtasunak eta mugak gainditzeko etengabeko borondatea erakustea, baita oharrak entzuteko jarrera malgua izatea.

– Norberaren gorputz- eta ahots-irudia ezagutu eta onartzea lan-tresna gisa.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Interpretazioa (III)

Kurtsoa: 3

Kreditu kop.: 6

Deskribatzaileak:

Antzezpen-sorkuntzaren praktika, non prestakuntzaren alderdi guztiak laburbiltzen baitira. Sorkuntzako prozesu globalaren konplexutasuna ezagutu eta esperimentatzea dakar berekin, antzezpen-esperientzia barnean hartuta.

Eskuratutako hizkuntzak, prozedurak, kontzeptuak eta ezagutzak integratzeko mekanismoak ikastea, sorkuntza eszenikoaren sentsazioak, emozioak eta zentzua ikusleari transmititu ahal izateko.

Inprobisazioaren praktikan sakontzea.

Pertsonaia sortzeko prozesuan sakontzea.

Beste irakasgai batzuetan ikasitako teknikak interpretazioan aplikatzea.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Sorkuntza eszenikoko praktikak garatzea, prestakuntzako alderdi desberdinak laburbilduz eta sorkuntzako prozesu globalaren konplexutasunaren ezagutza eta esperimentazioa sartuz horretan, antzezpen-esperientzia barne hartuta.

– Eskuratutako hizkuntzak, prozedurak, kontzeptuak eta ezagutzak integratzeko mekanismoak ikasten sakontzea, ikuslearekin interakzioa izan eta haren partaidetza sustatzeko sorkuntza eszenikoko sentsazioen, emozioen eta zentzuen esparruan.

– Interpretazioaren oinarrizko printzipioak eta prozedura teknikoak ezagutzea.

– Egoera, ekintza eta gatazka dramatikoa eraikitzeko eta garatzeko teknika desberdinak aplikatzea.

– Aktorearen adierazpen-baliabideak eta barne-prozesuak garatzea, erabilitako interpretazio-sistemen eskakizunei egokituta.

– Norberaren ahalmen teknikoak eta espresiokoak esploratu eta lantzea.

– Aktorea estimulatzeko bideak ezagutzea, eta irudimen sortzailea garatzea.

– Akzio-erreakzio prozesua eta inprobisazio-teknikak praktikatzea.

– Genero, estilo eta bitartekoetara egokitzea adierazpen-baliabideak eta -teknikak.

– Metodoak eta diziplinarteko lan-prozedurak ezagutu eta probatzea.

– Egoera dramatikoak aztertu eta praktikan jartzea, testuetatik abiatuta, horien eduki sentsorial, emozional, intelektual eta estetikoen komunikazio-ahalmenari begiratuz.

– Gatazka-egoera batean portaera organikoa garatzeko gai izatea.

– Eszena prestatzeko eta antzezteko behar diren trebetasunak eta osagarriak bateratzea.

– Antzerki-ikuskizun bat konfiguratzen duten sorkuntza- eta adierazpen-baliabideak eta horien eszenaratzea erlazionatzea.

– Beste ikasgai batzuen konpetentzia teknikoak eta kontzeptualak bateratzea, ahotsa, musika eta kantua, mugimendua, pertsonaiaren diseinua, dramaturgia eta eszenifikazioa, esate baterako.

– Antzerki fisiko eta ikus-antzerkiko beste irakasgai batzuetan bereganatutako ezagutzak ikertu eta norberaren adierazpen-baliabideei gehitzea, baita mimo, pantomima eta clown-aren kontzeptuak eta teknikak ere.

– Antzezte-teknikak ezagutu eta probatzea, pertsonaiaren eta maskararen kontzeptuetatik abiatuta.

– Aktorearen adierazpen-baliabideak eta barne-prozesuak genero desberdinetako eskakizunetara egokitzea: Commedia dell'Arte, tragedia, drama, performance, sorkuntza-antzerkia, ikus-entzunezkoa eta beste hizkuntza eszeniko garaikide batzuk.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Autodiziplina garatzen eta interpretearen prestakuntzako oinarrizko osagaiak bereganatzen aurrera egin duela erakustea, programatutako jardueretan modu arduratsu eta sortzailean parte hartuz.

– Autonomia eta ekimena erakustea, artearen ikerketan, prestakuntzan eta jardueretan.

– Interpretazioan eta eszenaratzeko prozesuan parte hartzen duten irakasgai desberdinetako ezagutzak eta prozedurak bateratu eta modu sortzaile eta kontzientean erabiltzea.

– Pertsonaia aztertu, sortu eta interpretatzeko landutako konpetentziak egoki erabiltzea, eszenaratzearen generoaren, garaiaren eta estiloaren arabera.

– Ikuskizun, estilo, genero eta metodologiak baloratu eta identifikatzea, eta eskola-praktiketan erabilitakoekin erlazionatzea.

– Entsegu eta antzezpenetan, adierazpen-, keinu-, soinu- eta plastika-balioak sortu eta argitasunez, indarrez, aniztasunez eta modulazioz komunikatzea.

– Testu dramatikoak aztertzeko eta eszenan jartzeko lan-sistema eta -metodologia koherenteak erabiltzea.

– Gorputza eta haren energia ekoizpen-sistemak aldatzen dituzten elementuen erabilera kontzientea bereganatu eta garatzea, haren adierazpen-ahala eta performatiboa zabalduz.

– Pertsonaiak sortu eta eszenaratzeko ideian txertatzea, zehaztasun eta organizitatez, eta gainerako interpreteei eta proposamen eszenikoa osatzen duten gainerako elementuei dagokienez.

– Antzerki fisikoaren eta sorkuntzaren oinarri espezifikoak aztertzean ikasitako kontzeptuak, edukiak, prozedurak eta hizkuntzak aplikatzea prozesu performatiboetan.

– Norberaren lana ebaluatzeko gaitasuna eta etengabe hobetzeko prestutasuna izatea.

– Modu autonomoan praktikatzea entrenamenduko ariketa-taulak eta prestakuntza indibidual eta kolektiboko teknikak, antzezpenaren aurrekoak.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta gai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Antzezte-adierazpen Garaikideen Tailerra (II)

Kurtsoa: 3

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

Eszenara eramandako bereziki testu teatral ez diren testuen gaineko Ikerketa-lanaren proposamen praktikoa.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Hizkuntza eszeniko garaikidearen printzipioak eta sorkuntza-prozesuak ezagutu eta aztertzea, ikuspegi metodologiko desberdinetatik abiatuta: semiotikoak, estetikoak, soziologikoak edo antropologikoak.

– Sorkuntza garaikideko lan-metodoak ezagutu eta probatzea, sorkuntza kolektibo metodoei arreta berezia eskainiz.

– Ikerketa-gaitasunak garatzea, ikuskizunaren arteei eta prozesu sortzaileei dagokienez.

– Euskal Herriko abangoardiako adierazpenak identifikatu eta beste leku batzuetako egile eta sortzaileen dramaturgiekin erlazionatzea.

– Lan garaikideko tailer praktikoa.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Proposamen eszeniko eta narratibo garaikideen azterketari dagokionez, ideiak eta argudioak era arrazoituan eta kritikoan garatzea.

– Dramaturgia garaikideekin zerikusia duen Informazio garrantzitsua bildu, aztertu, laburbildu eta egoki kudeatzea.

– Dramaturgia garaikideen ezaugarriak ezagutzea, horien sortzaile nagusiak eta ekarpen estetiko, etiko eta humanistikoak.

– Eszena garaikidearen estetika eta narratiba beste arte-hizkuntza batzuekin erlazionatzea.

– Ikasgai desberdinetan landutako ezagutzak eta teknikak osatu eta antzerki garaikideko lan dramatikoen eszenaratzean erabiltzea.

– Proposamen dramatikoak egitea, antzezpenerako bereziki ez sortutako testu-, ikus-material, edo beste edozein izaeratako materialetatik abiatuta.

– Ezagutu eta interpretearen sorkuntza-lanean erabiltzea sorkuntza-antzerkian eta beste adierazpen performatibo batzuetan maiz erabiltzen diren teknologien adierazpen-aukerak (soinua, argia, ikus-entzunezkoak).

– Talde batean integratu eta ekarpen esanguratsuak egitea lan garaikide baten eszenaratze-prozesu konplexu bat egitera bideratutako lan kolektibo batean.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Diziplinarteko Proiektuen Laborategia (II)

Kurtsoa: 3

Kreditu kop.: 4

Deskribatzaileak:

Diziplinarteko Proiektuen Laborategiak (I eta II) proiektu irekiak dira, edukiei zein metodologiei dagokienez, eta ikastetxeak ikastetxetik kanpoko irakasleei ematen die horien ardura, lauhileko batean gara ditzaten. Irakasle horiek eszenako profesional gailenak izaten dira. Hezkuntza-maila honetan ikasten ari diren Arte Dramatiko, Dantza eta Eszenotekniako espezialitate desberdinetatik datozen ikasleak hartzen ditu proiektu bakoitzak. Ikasle guztiak hartzeko behar diren adina laborategi antolatzen dira urtero, landutako proiektuen izaera eta beharren arabera.

Laborategien helburuak honako hauek dira:

loturak sortzea arte-diziplina eta -praktiken artean.

Aztertutako ikasgaiak bateratzea.

Tailer monografiko batean egitea horien aplikazio praktikoa. Tailer horretan, sorkuntzaren prozesu globalaren konplexutasunari ekingo zaio, prestakuntzako ezagutza-arlo desberdinetako zehar-kakotasuna hartuko da aintzat, eta arte-espezialitate eta -hizkuntza desberdinak integratzearen alde egingo da.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

– Aztertutako ikasgaiak bateratu eta erabiltzea.

– Interpretazio-teknika desberdinak bateratu eta tailer bateko praktika eszenikoan erabiltzea.

– Dagoeneko existitzen den lan bat lantzen bada, testu- edo gidoi-egilearen ezaugarri espezifikoak eta haren lanaren gako estetikoak ezagutzeko.

– Sortzen ari diren praktika artistikoak ezagutu eta aztertzeko, eta gertakari eszeniko garaikidearekiko haien erlazioa eta aplikazioa esperimentatzeko, joera teoriko eta kontzeptualak zein prozedurakoak eta esperimentalak inplikatuz.

– Aktorearen ikuspegitik, lana eta papera aztertzeko teknika dramaturgiko desberdinak erabiltzeko.

– Hizkuntza eszenikoaren elementu desberdinak ezagutu eta bateratzeko: eszenografia, jantziak, argiztapena.

– Pertsonaia sortzearen eta eszenan ezartzearen ikuspegiak erabiltzeko, proposatutako poetika eszenikoaren esparruan.

– Mugimendua sortzean eta testua organikoki gehitzean garatutako adierazpen-baliabideak (gorputza(ahotsa) ezagutu eta erabiltzeko.

– Pentsamendua eta praktika eszenikoak berritzeari buruz, arte eszenikoetako artistekin eta profesionalekin egindako topaketa eta eztabaidetan parte hartzeko.

– Lan-teknikak eta -prozedurak bereganatzeko, ikerketa-ekintzaren testuinguruan.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Bereganatutako prozedurak, kontzeptuak eta ezagutzak lan-prozesuan eta antzezpenean erabiltzea, sorkuntza eszenikoaren sentsazioak, emozioak eta zentzua ikusleari transmititu ahal izateko.

– Praktika eszenikoetan parte hartzea jarrera arduratsu, sortzaile eta sentikorrez, agindutako lana zorrotz betez.

– Laneko jarraibide indibidualak eta taldekoak aplikatzea, egokiro integratuz diziplina anitzeko lan-talde batean.

– Laborategiko ikastaroaren maila akademikoari egokitutako gaitasuna adieraztea, interpretazioaren prozedura teknikoak erabiltzean, eta egoera, ekintza eta pertsonaia eraikitzean eta garatzean.

– Egindako eszenaratzeari dagozkion elementu testualak, koreografikoak, soinukoak, eszenografikoak eta abar identifikatu, aztertu eta justifikatzea.

– Egokiro erabiltzea terminologia eta eskatutako dokumentazio-baliabideak.

– Lortutako emaitzaren eta erabilitako lan-metodoaren balorazio kritikoa egitea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Antzezte-lekuari Aplikatutako Teknologiak

Kurtsoa: 3.

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

Ikuskizuneko teknologiaren ezagutza eta balorazioa, material konbentzionalak eta adierazpenekoak, eta ikuskizunari lotutako arkitektura, makinaria, argiztapena, soinua eta irudiaren teknologiaren baldintzapen material hauek modu adierazgarrian erabiltzeko.

Eszenaratzearen azterketa Ikuskizun forma desberdinetan.

Interpretearen egoera antzezte-lekua eta espazio eszenografikoa, argiztapena eta soinu-espazioa ezartzean.

Arkitektura eszenikoan erabilitako teknologiaren adierazpen-ahalmena (soinua, argia eta ikus-entzunezkoak).

Argiaren dramaturgiaren hastapenak.

Eszenaratzean erabilitako soinu-elementuak.

Proiekzio-sistemen makinaria eszenikoaren sistemen oinarriak.

Antzezte-lekuari dagokionez aplika daitezkeen segurtasun-neurriak.

Konpetentziak:

Ikasleak gai izan behar du:

– Antzokiaren eta haren ekipamenduaren elementu desberdinen nomenklatura eta funtzionaltasuna ezagutzeko.

– Antzezte-lekuaren kontzeptua eta antzezpenaren osagarri mekanikoak, plastikoak eta soinudunak maneiatzeko.

– Argiaren garapena aztertzeko proposamen dramatikoaren diseinu globalean, testu edo partitua eszenikotik abiatuta.

– Ikuskizun-argiztapeneko kontzeptuen eboluzio historikoa ezagutzeko.

– Identifikatzeko kolorearen esanahi estetikoa eszenan.

– Argiztapen eszenikoan erabiltzen diren teknologiak ezagutu eta modu oinarrizkoan aplikatzeko.

– Erlazionatzeko aktorearen jarrera eta mugimendua bere irudiak argiztatuta emititzen dituen zeinuekin.

– Dramaturgian eta ikuskizun mota desberdinetako eszenifikazioan erabiltzen diren soinu-elementuak aztertzeko.

– Ikuskizun bateko soinu-diseinuaren faseak ezagutu eta aplikatzeko.

– Ezagutzeko soinu-espazioaren kontzeptuaren garrantzia ikuskizun batean.

– Ezagutzeko makineria eszenikoko oinarrizko elementuen printzipio mekanikoak eta horien kontrol-sistemak.

– Makineria eszenikoko segurtasun-araudiak ezagutzeko.

– Proiekzio eszenografiko sistema ezagutu eta erabiltzeko.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

– Argia espazio eszenografikoak sortzeko tresna bezala ulertzeko.

– Eszenaratzean argiak eta koloreak duen eginkizuna aztertzeko.

– Argiaren dramaturgiaren printzipioak ulertzeko genero eszeniko desberdinetan.

– Ikuskizunen argiztapenen erabiltzen diren elementu teknikoen oinarrizko ezagutza erakustea.

– Argiztapen-estilo desberdinak eta horien eboluzioa ezagutzeko antzezpen eszenikoaren historian zehar.

– Argiztapen-proposamen bat egiteko, testu edo partitura batetik abiatuta.

– Dramaturgian eta eszenifikazioan erabiltzen diren soinu-elementuak, ulertu, aztertu eta sortzeko.

– Antzerki-ikuskizun bateko soinu-espazioaren diseinuan sartutako teknologia modu oinarrizkoan erabiltzeko.

– Ikuskizun bateko soinuaren diseinu-prozesuaren fase desberdinak ezagutzeko.

– Ezagutzeko makineria eszenikoko oinarrizko elementuen printzipio mekanikoak eta horien kontrol-sistemak.

– Makineria eszenikoari buruzko segurtasun-arauak ezagutu eta aplikatzeko.

– Ezagutzeko eszenan erabiltzen diren irudi-proiekzioko sistemak eta horien kontrol sistemak. Estatikoa zein dinamikoa.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Antzezte-proiektuen Ekoizpena eta Kudeaketa. Ekintzailetza II

Kurtsoa: 3

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

Ekoizpen-proiektu bat egiteko prozesuan sakontzea, komunikazioaren, ekonomiaren eta teknikaren ikuspuntutik.

Artistaren banakako zein taldeko lan-aukeren azterketa teorikoak.

Konpetentziak:

Antzerki-ekoizpeneko proiektu bat aztertu eta burutzea, kudeaketaren ikuspuntutik.

Arte Dramatiko eta Dantzako etorkizuneko graduatuek izango dituzten lan-mundura sartzeko aukerak aztertu eta praktikan jartzea.

Antzerki- edo dantza-konpainia baten ikuskizun-dossier bat abian jartzeko proiektu praktiko bat, edo aktore zein dantzari baten web propioa egiteko gai izatea, lan-merkatuan sartzeko helburuarekin.

Lan-mundura sartu ahal izateko dauden bide tradizionalen zein online bideen ezagutzan sakontzea.

Arte-prozesuetarako, dantza edo antzerki konpainientzako eta artistentzako –indibidualki hartuta– finantzazio-bide instituzional eta pribatuak ezagutu, aztertu eta bilaketa praktikoak egitea.

Ebaluazio-irizpideak:

Ikaslea gai izango da:

Ekoizpen eszenikoko proiektu bat prestatzeko kudeaketa kultural eta ekonomikoaren ikuspegitik, eta berau garatzen deneko esparru sozio-laborala baloratuz.

– Interpretearen irteera profesionalak eta enplegua bilatzeko estrategia proaktiboak ezagutu, eta jakiteko nola eta ze eratan aurkeztu entzunaldi batera eta nola erabili tresna grafikoak eta online tresnak, beraren sustapen proaktiborako.

– Euskal Autonomia Erkidegoan eta Europan, ikuskizun eszenikoen ekoizpenean, banaketan eta erakusketan parte hartzen duten agente eta zirkuitu nagusiak identifikatzeko.

– Administrazio desberdinetako arte eszenikoetara bideratutako laguntzen arauketak ezagutzeko, baita laguntza eta mezenasgo pribatuak eta ikuskizun eszenikoak finantzatzeko beste modu batzuk ere.

– Probak, casting-ak eta entzunaldiak arrakastaz gainditzeko estrategiak ezagutu eta praktikan jartzeko.

– Komunikazioan eta ekoizpen eszeniko tradizionalak zein online bidezkoak merkaturatzean aplikatu daitezkeen marketinaren eta publizitatearen oinarriak ezagutzeko.

LAUGARREN KURTSOA

Irakasgaia: Muntaketari buruzko Tailer Praktikoa

Kurtsoa: 4

Kreditu kop.: 20

Deskribatzaileak:

– Muntaketari buruzko Tailer Praktikoa.

– Eszenifikazioaren printzipio orokorrak, antzezlearen lana oinarri hartuta.

– Eszenifikazio-prozesuaren faseak.

– Antzezpenaren metodologiak eta oinarrizko teknikak, praktikan, antzezlearen arlo desberdinetako prestakuntza eta lana bilduko duen antzerki-ikuskizun bat sortzeko.

– Eszenako antzezpen-sistemen tekniken erabilera.

– Egoeraren eta pertsonaiaren kontzepzioa eta azterketa.

– Aktoreek duten interakzioa gainerako hizkuntza dramatikoekin, espazioan zein denboran.

– Mugimendu eszenikoaren, testuaren, ahotsaren, ahots kantatuaren eta hizkuntza eta forma desberdinen kontzeptua eta azterketa, pieza artistiko bat praktikan jarriz profesional baten edo batzuen gidaritzapean.

Konpetentziak:

Ikasleak gai izan behar du:

– Antzerki-ikuskizun baten burutzapena ezagutu eta esperimentatzea.

– Prozedurak identifikatzeko antzezpen-lanean.

– Sorkuntzaren prozesu artistiko globala esperimentatzeko, egiten den muntaketa-estiloari dagozkion eszenak pentsatuz, sortuz, entseatuz eta muntatuz.

– Eskuratutako hizkuntzak, prozedurak eta ezagutzak integratzea, sorkuntza eszenikoaren sentsazioak, emozioak eta zentzua ikusleari transmititu ahal izateko.

– Eszenifikazioaren kontzeptuak, prozedurak eta oinarrizko faseak ezagutu eta praktikan jartzea, ikuskizuna sortzean erabilitako hizkuntza desberdinetan arreta jarriz.

– Hipotesi dramaturgiko, tekniko, etiko eta estetiko baten formulazio gisa ulertzeko eszenifikazioa, ikuslearekiko komunikatibo eta antzerki-ikuskizunaren sorkuntzan parte hartzen duten hainbat kolaboratzaileekiko dialektiko den prozesu baten barnean.

– Aktorearen lana aztertu, ezagutu eta praktikan jartzea, pertsonaiari, egoerari eta eszenari dagokienez eta ikuskizuna eraikitzen duen partaidetzari dagokionez.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikasleak helburu hauek lortzeko duen gaitasuna baloratuko da:

– Antzerki-pieza baten muntaketa-prozesua aztertzeko eta modu praktikoan ezagutzeko.

– Aktoreak eszenan egiten duen lana eta prozesu horretan erabiltzen dituen kontzeptuak, prozedurak eta oinarrizko faseak ezagutu eta ebaluatzeko.

– Hizkuntza eszeniko eta muntaia-teknika desberdinak ezagutzea prozesu praktikoetan.

– Entseguen eta lanaren etapa garrantzitsuenak identifikatzea zuzendaritza-eszenikoaren prozesuan laguntzen dutenekin.

– Eszenifikazioaren sorkuntza-prozesua eta horretan parte hartzen duten elementu esanguratsuak aztertu eta ondo ulertzeko.

– Eszenifikazioa proposamen dramaturgiko, tekniko eta estetiko gisa ulertzeko, eta ebaluatzeko sorkuntzaren aldetik aktorea nola txertatzen den eszenifikazioan eta gainerako parte-hartzaileekin.

– Mugimendu eszenikoaren esanahia ezagutzea (jarrera, desplazamendua, erritmoa eta koreografia) eszenifikazio-forma desberdinetan.

– Talde artistiko eta tekniko baten integrazio prozesua ezagutzeko.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Ebakera eta Ahozko Adierazpena (II)

Kurtsoa: 4

Kreditu kop.: 5

Deskribatzaileak:

Ahotsa, tresna sortzailea.

Giza komunikazioaren printzipioak.

Ahozko hizkuntza, esanahiak, intentzioak eta arrazoiak transmititzeko bide den aldetik.

Ondo jakitea irakasgaia emango den hizkuntza (euskara/gaztelania).

Hizkuntzaren doinua eta musikaltasuna.

Soinuen eta hitzen kalitateak eta baliabideak. Azentua, erritmoa, intonazioa.

Ahozko komunikazioaren erabilera artistikoa: printzipioak eta oinarriak.

Ebakeraren azterketa: elementu teknikoak eta adierazpenekoak (ortofonia, prosodia, bertsoa, etab.). Genero, estilo, antzezpen-forma eta ikus-entzunezko desberdinetan erabiltzen diren adierazpen-teknikak menderatzea.

Artikulazioa lantzeko teknikak eta baliabideak.

Euskararen eta gaztelaniaren soinuak zuzen ekoiztea.

Pertsonaia dramatikoaren ahozkotasunaren azterketa.

Hizketaren karakterizazioa, pertsonaiaren eta testuinguruaren arabera.

Ahotsa prestatzen eta trebatzen ikastea.

Oinarrizko irizpide linguistikoak garatzea aktorearen praktika profesionalean eta presta-kuntzakoan.

Hizkuntzaren aldakuntzak parametro sozial, funtzional eta geografikoen arabera.

Artikulazioa, prosodia, intonazioa eta azentuaren funtzio erritmikoa prosan eta bertsoan.

Eszenak praktikatzea, testu dramatiko eta poetikoetan oinarrituta.

Konpetentziak:

Ikasleak gai izan behar du:

– Soinuaren eta hitzaren artikulazio-aparatuari buruz bereganatutako ezagutzak erlazionatu eta praktikan jartzeko.

– Ahozko hizkuntza osatzea eszenaratzea egiteko erabiltzen dituzten beste hizkuntza batzuekin.

– Soinu-ekoizpenari lotutako akatsak ezagutu eta zuzentzeko.

– Mezuaren transmisioa bermatuko duten ahozko teknikak ezagutu eta erabiltzea, testu dramatikoari arreta jarriz, eraginkortasunez, egiazkotasunez eta intentzio estetikoz.

– Argi hitz egitea, ahoskera eta artikulazioa ondo menderatuz.

– Hizketaren entzute aktiboa eta kritikoa egitea.

– Hizketaren ekoizpena hobetzeko ariketen metodologia ezagutu eta ondo erabiltzea.

– Komunikazio publikoan ahozko hizkuntzaren erabilera egokian parte hartzen duten hizkuntzaren alderdi fonetikoen eta prosodikoen gaineko hausnarketa egitea.

– Euskararen eta gaztelaniaren soinuak zuzen ekoiztea. Ikasketak egiten direneko hizkuntzaren artikulazioa eta fonetika ezagutu eta praktikatzea.

– Prosan dagoen testu dramatikoaren ahoskatze-arauak sistematizatzeko, eta, modu oinarrizkoan, bertsoarenak.

– Oinarrizko elementu prosodikoa ondo kontrolatzea: erritmoa, intonazioa eta azentua.

– Aktorearen praktika profesionalean behar diren irizpide linguistikoak izatea.

– Pertsonaia sortzeko ahots-baliabideak eta baliabide linguistikoak erabiltzea.

– Hizkuntza eszenikoaren baliabide teknikoak eta adierazpen-baliabideak antzezpenean erabilitako beste hizkuntzekin erlazionatzea.

– Ahots-, artikulazio- eta adierazpen-teknikak egokitzea eszenako hizketaren eskakizunetara, antzerkiaren eta ikus-entzunezko ikuskizunen genero desberdinetan.

– Hitza erabiltzea pertsonaiaren hainbat egoera, gogo-aldarte eta tipologia adierazteko.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikasleak helburu hauek lortzeko duen gaitasuna baloratuko da:

– Norberaren ezaugarrietara eta beharretara egokitutako gorputz- eta ahots-beroketa egitea, ahozko adierazpenean parte hartzen duten organo eta sistema guztiak hoberen funtzionatzen jarriko dituen ariketa-taula egoki baten bidez.

– Interpretazioan erabiltzen den ahots-teknika menderatzen dela erakustea.

– Elementu prosodikoak eta horien balio komunikatiboa ezagutu eta erabiltzea: denbora, etenaldiak, intonazioa eta azentuak.

– Ahots-, artikulazio- eta adierazpen-teknikak hizketa eszenikoaren eskakizunetara egokitzea.

– Ikasitako ebakera eta prosodia sormenez erabiltzea genero eta egoera desberdinetan.

– Pertsonaia sortzeko ahots-baliabideak eta baliabide linguistikoak ezagutu eta erabiltzea.

– Pertsonaiaren tipologiarekin eta egoerarekin koherente izango den hizketa eszenikoa erabiltzea.

– Ahotsa karakterizatzeko teknika menderatzen dela erakustea.

– Ahotsaren ebakera, ekoizpena eta modulazioa, alderdi prosodikoak, intonazioa eta energia menderatzea pertsonaia bat interpretatzean.

– Ahots-, artikulazio- eta adierazpen-teknikak egokitzea eszenako hizketaren eskakizunetara, hainbat antzerki- eta ikus-entzunezko genero eta estilotan.

– Bertsoan idatzitako testuak ulertu eta interpretatzea, intentzioa eta musikaltasuna agerian utziko dituen ahozko adierazpen zuzen baten bidez.

– Testu dramatikoko hizkuntzaren estiloa eta espresio-gakoak identifikatu eta menderatzea.

– Gorputzaren mugimendua ahotsarekin harmonizatzea antzezpenean.

– Antzeztutako pertsonaien hizkera bereizten duten ezaugarri fonetikoak, erritmikoak eta melodikoak ikertu, praktikatu eta menderatzea.

– Hitza erabiltzea pertsonaien hainbat egoera, gogo-aldarte eta tipologia adierazteko, erregistro, ñabardura eta elaborazio formalen bitartez.

– Ikertzea, banaka zein taldean, jakineko testu-diskurtso bateko ahots-tinbreen eta emozioen artean dagoen lotura.

– Ahots-sormena elementu bereizgarri gisa erabiltzea ahots-identitate eta -nortasun bati arketipoak eta rolak esleitzeko.

– Testuan txertatzea mezuaren elementu adierazgarriak eta teknikoak, ezarritako sinbologiaren arabera.

– Ezagutza teknikoak eta ahotsari buruzkoak aplikatzea esperimentazioan. Sormena garatzea, teknika eta ahots-baliabideen ezagutzan oinarrituta.

– Norberaren entrenamendua landu, bideratu eta zuzentzea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Janzkera

Kurtsoa: 4

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

Aktorearen gorputzak, aurpegiak eta jantziak emititzen dituzten zeinuak ezagutu eta aztertzeko behar diren tresnak menderatzea, pertsonaiaren eskakizunen arabera egokitzeko edo aldatzeko.

Pertsonaiaren sorkuntza plastikoaren kontzeptuak eta oinarriak, janzkera eszenikotik abiatuta.

Janzkera eszenikoaren eboluzioa garai desberdinetan, eta horren lotura jantzien eboluzioarekin.

Pertsonaiaren jantzien azterketaren hastapenak ikuskizunaren kontzepzioan, aktorearen ikus- eta plastika-adierazpen gisa eszena barruan.

Janzkera eszenikoa egiteko erabiltzen diren material eta tekniken oinarriko ezagutza.

Jantziaren eta modaren historiaren hastapenak.

Konpetentziak:

Ikasleak gai izan behar du:

– Jantzien eboluzioa ezagutzea, baita historian zehar jantziak izan duen funtzio soziala ere.

– Ezagutu eta aztertzea janzkeraren eboluzioa eta jantzi eszenikoaren funtzioa garai desberdinetako ikuskizunetan.

– Janzkera aztertu eta ulertzea alderdi funtzional eta semiotikoei dagokienez, eta ekintza eszenikoarekin lotzea.

– Janzkera eta antzerki- edo dantza-ikuskizun baten eszenaratzea definitzen duten gainerako elementu kontzeptual eta estetikoak erlazionatzea.

– Ezagutzea janzkera eszenikoko materialen diseinuan eta erabileran zein diren joera adierazgarrienak eta horien balio adierazlea eszenaratzean eta pertsonaia dramatikoa osatzean.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikasleak helburu hauek lortzeko duen gaitasuna baloratuko da:

– Garai historiko desberdinerako estiloak eta moda nagusiak ezagutzea, formak, ehunak eta erabilitako janzki eta osagarrien koloreak.

– Historian zehar jantzi eszenikoak izan duen funtzioa ezagutu eta aztertzea.

– Kolorea, ehundura, ehuna, argiztapena eta beste elementu plastiko batzuk komunikazio-balioa duten zeinu bezala baloratzea, eta eszenaratzearen gainerako elementuekin erlazionatzea.

– Janzkeraren edukiak aktoreen gorputzak eta aurpegiak emititzen dituzten zeinuekin erlazionatzea.

– Iturri eta euskarri desberdinak erabiltzea pertsonaia baten janzkera ikertzeko.

– Eszenaratzearen estiloaren arabera egitea pertsonaien karakterizazioa.

– Figurinak egiteko modu oinarrizkoan, aintzat hartuta garaia eta eszena-proposamenari dagozkion jantzi motak.

– Konplexutasun handirik ez duten jantzien patroiak egitea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Arte Eszenikoen Pedagogia

Kurtsoa: 4

Kreditu kop.: 4

Deskribatzaileak:

Hezkuntza-teorien, ikaskuntzaren eta garapenaren psikologiaren ezagutza.

Ezagutu eta praktikan jartzea curriculumaren diseinu- eta garapen-prozesuak, plangintza didaktikokoak eta hezkuntza-praktiketarako eta antzerki- eta eszena-animaziorako materialak egitekoak.

Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen eta antzerki-animazioko programen diseinua, garapena eta ebaluazioa bideratzen duten printzipio teoriko eta metodologikoen ezagutza, espazio, denbora eta onuradun desberdinen arabera.

Irakaskuntza-, ikaskuntza- eta animazio-metodo eta -estiloen ezagutza, azterketa eta praktika.

Hezkuntzaren historiaren eta antzerki-animazioaren oinarrizko alderdien ezagutza.

Kasuen ikerketa eta jardunbide egokien azterketa.

Hezkuntzaren eta antzerki-animazioaren gaineko ikerketa.

Berme-politikak eta kalitate-kudeaketa.

Konpetentziak:

Ikasleak gai izan behar du:

– Diseinuko, plangintza didaktikoko eta arte eszenikoetako hezkuntza-praktiketarako materialen prestaketako printzipio teorikoak ezagutzeko.

– Irakaskuntza-jardunbidea ikasleen maila, adin, egoera eta motibaziora egokitzeko.

– Ikasgai baten programazio didaktikoa egiteko.

– Ikasgaiaren unitate didaktikoak prestatzeko, haren edukiak eta tenporalizazioa, helburuak, eta ebaluazio-metodologia ezarriz.

– Arte eszenikoetako irakaskuntza-jardunbidera aplikatutako ikerketa-oinarriak ezagutzeko.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikasleak helburu hauek lortzeko duen gaitasuna baloratuko da:

– Garapenaren psikologiaren, pedagogiaren eta hezkuntzako teorien oinarrizko printzipioak ezagutzea.

– Artearen bidezko heziketaren eta arte eszenikoen balio hezitzailearen teoria desberdinak ezagutzea, baita gai horren inguruko egile nagusiak eta horien ekarpen garrantzitsuenak ere.

– Horiek aplikatzea arte eszenikoetako ikasgai bateko prozesu didaktiko baten diseinuaren, garapenaren eta ebaluazioaren testuinguruan, jakineko prestakuntza-esparru batean.

– Arte eszenikoetako irakaskuntza- eta ikaskuntza-metodoak eta -estiloak ezagutu, aztertu eta praktikan jartzea.

– Antzerki-animazioko oinarri teorikoak ezagutzea.

– Antzerki-animazioko partikulartasun hezigarriak, artistikoak eta kulturalak bereiztea hainbat testuingurutan: haurrentzako eta gaztetxoentzako antzerkia, antzerki komunitarioa, sektore ahulenekin hezkuntza-lana etab.

– Irakaskuntza-ikaskuntzako teknika eta baliabide desberdinak erabiltzea, metodologiak heziketa-esperientziaren egoera eta helburuetara egokituz.

– Animazio soziokulturaleko praktika espezifiko bat bezala ulertzea antzerki-animazioa.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplika dakizkiokeen konpetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoa, kontzeptu teorikoak asimilatzeko eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.

Irakasgaia: Praktikak

Kreditu kop.: 22

Deskribatzaileak:

Bereganatutako ezagutzak ingurune profesional batean erabiltzea.

Praktikak egiteko prestakuntza-programa egoki bat duen organismo, erakunde edo enpresa eskudunetan egingo dira praktikak, ahal bada, lankidetza-hitzarmen bidez. Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Espazioko truke- eta mugikortasun-programen bidez ere burutu ahal izango dira praktikak.

Baldin eta profesionalen mailarekin pareka daitezkeen muntaketa eszenikoak egiten dituzten konpainia bat edo gehiago badu ikastetxe emaileak, horietan parte hartzea kanpoko praktikak egitearen parekoa izango da, araudi akademikoak ezartzen dituen baldintzetan, betiere.

Nolanahi ere, ikastetxe emaileak irakasle bat esleituko dio ikasle bakoitzari, haren praktiken tutore izan dadin eta adostutako hezkuntza-programa beteko dela bermatzeko.

Hezkuntza-administrazioak, ikastetxe emaileari kontsulta egin ondoren, praktikak egiteko baldintzak, eskakizunak eta bermeak arautuko ditu, baita baliokidetze posibleak ere praktikekin pareka daitekeen lan-esperientzia profesionalik badutela frogatzen duten ikasleentzat.

Konpetentziak:

Ikasleak gai izan behar du:

– Esleitutako proiektuaren errealitate profesionalean bereganatutako ezagutzak erabiltzeko eta osatzeko.

– Bere jarduera gauzatuko duen lan-merkatuaren errealitatera hurbiltzeko.

– Zeharkako konpetentziak, konpetentzia orokorrak eta berariazkoak bereganatzeko, jardun profesionalerako prestatzen duen eta haren enplegagarritasuna eta errendimendu-gaitasuna errazten duen ekoizpen-esparru erreal batean.

– Interpretaziozko heldutasun nahikoa erakustea jendaurrean.

– Autonomia duela erakustea agindutako zereginak egitean.

– Ikasteko, talde-lanean aritzeko eta etengabe hobetzeko jarrera aktiboa izateko.

– Konpromisoak eta ardurak bere gain hartzeko gaitasuna garatzeko.

– Pertsona arteko trebetasunak erakustea publikoarekin eta gainerako profesionalekin.

– Kuriositatea eta interesa agertzea praktikak egiten direneko talde, enpresa, entitate edo erakundearen funtzionamendu globalaz.

– Beste hizkuntza batzuk erabiltzeko, hala eskatuz gero.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikasleak helburu hauek lortzeko duen gaitasuna baloratuko da:

– Agindutako lanak inplikazioz, sormenez, zuhurtasunez eta profesionaltasunez egitea.

– Saiatua eta ausarta izatea zailtasunak gainditzen, jarritako helburuak lortzeko ahalegin jarraitua mantentzen saiatuz.

– Agindutako eginkizun profesionalei egokitutako ezagutzak, prozedurak eta teknikak erabiltzea, horiek sortutako arazoak konponduz.

– Autonomia profesionalez aritzea.

– Erabakitzeko gaitasuna eta espiritu autokritikoa erakustea.

– Jarrera irekia izatea oharren, aholkuen eta iruzkin kritikoen aurrean.

– Lantaldean integratzea, programatutako helburu kolektiboak lortzen laguntzeko.

– Praktikak atzerriko hizkuntza batean garatzen badira, hizkuntza horretan ondo moldatzea, beharrezkoa bada.

– Lanbidearen printzipio etikoak ezagutu eta aplikatzea.

Irakasgaia: Ikasketen amaierako lana

Kurtsoa: 4

Kreditu kop.: 10

Deskribatzaileak:

Ikasketen amaierako lanaren helburua da titulazioarekin zerikusia duten zeharkako konpetentziei, konpetentzia orokorrei eta berariazko konpetentziei dagokienez ikasleak lortu duen bereganatze-maila egiaztatzea, eta baita jarduera profesionala burutzeko duen gaitasuna frogatzea ere.

Agiri bat prestatu beharko da edo arte eszenikoen ikerketako konpetentziak bereganatzea sustatzera bideratutako esperientzia pedagogiko bat, proiektu sozial bat edo errealizazio artistiko bat.

Dokumentala, historiografikoa edo performatiboa ahal izango da, eta Interpretazioa espezialitateko Arte Dramatikoko Goi Mailako Tituluaren profil profesionalean ezarritako eremuren bati buruzkoa izango da.

Ikasketen amaierako lana banaka edo taldean egin daiteke; nolanahi ere, lanaren defentsa banaka egingo da.

Ikasleak proposatu ahal izango du lanaren gaia, baina dagokion didaktika-departamenduari egokituko zaio onartzea ala ez, bertan garatuko diren ikerketa-lerroekin duen lerrokatzearen arabera.

Espezialitateko ikasketa-plana osatzen duten irakasgairen bateko irakasle arduradun baten zuzendaritzapean egingo da Ikasketen amaierako lana.

Lana amaitu ondoren, ikasleak ekitaldi publiko batean defendatuko du, ikastetxe emaileak horretarako izendatutako epaimahai baten aurrean.

Hezkuntza-administrazioak Ikasketen amaierako lanaren araudia edo erregelamentazioa ezarriko du, ikastetxe emailearekin adostuta.

Konpetentziak:

Ikasleak gai izan behar du:

– Ikerketa-jarduera bat gauzatu eta dokumentatzeko arte eszenikoen esparruan.

– Proiektuak eskatzen dituen faseak eta metodologiak ezarri eta garatzeko: dokumentatzea, egituratzea, informazioa eta datuak bilatzeko teknikak bilatzea, ondorioak ateratzea, etab.

– Lan-hipotesi bat ezartzeko eta ikerketa-estrategiak planteatzeko.

– Diziplinako jakintza-eremu baten ezagutza ulerkor eta esanguratsua erakusteko.

– Iritzi informatuak eta arduratsuak eta ikerketa-xede den alorrean edo prozesuan proposamen alternatiboak prestatzeko.

– Norberaren ikaskuntza autorregulatzea eta autonomiaz bizitza osoan zehar ikasteko gaitasuna erakustea.

– Lagundu, taldean lan egin eta dibertsitatearekiko eta desadostasunarekiko errespetua erakustea.

– Ideiak zalu eta argi komunikatzeko, ahoz nahiz idatziz, eta, horretarako, komunikazioak eskatzen dituen baliabide teknologikoak erabiltzeko.

Ebaluazio-irizpideak

Ebaluazioan, ikasleak helburu hauek lortzeko duen gaitasuna baloratuko da:

– Ikerketa edo ekintza performatiboa planifikatzeko eta prozesu horiek eskatzen dituen metodologiak erabiltzeko.

– Ikasketen amaierako lanaren tutoreak emandako jarraibideak onartu eta ezarritako gidoia jarraitzeko.

– Modu autonomoan lan egiteko, erakutsiz informazioa biltzean, aztertzean eta laburbiltzean independentzia eta irizpide pertsonala dituela, eta sormena eta originaltasuna ideiak eta argumentuak garatzean.

– Honako hauek lotuko dituen lan bat egiteko: aukeratutako gaiaren egokitasuna, helburuen zehaztasuna, zorroztasun metodologikoa, oinarri teorikoa eta azken dokumentu edo errealizazio artistikoaren egituraren koherentzia.

– Ezarritako epeak betetzeko, helburuak betetzeko behar diren baliabideen erabilera optimizatuz.

– Prozesuko eta amaierako ideiak, argumentuak eta aberastasuna argi adierazten dituzten dokumentuak lantzeko.

– Ikerketaren beharretarako bibliografia egokia erabiltzea.

– Adierazpen-argitasuna eta egitura eta hurrenkera logikoak izango dituen lan bat aurkezteko, modu sintetiko, koherente eta zehatz batean, baliabide teknologiko egokiak erabiliz.

– Epaimahai aztertzailearen galderei erantzun egokiak emateko, ebaluatutako lanaren gaia menderatzen duela erakutsiz.

III. ERANSKINA, OTSAILAREN 16KO 23/2016 DEKRETUARENA

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK

T1.– Lana era eraginkorrean eta motibatzailean antolatu eta planifikatzea.

T2.– Informazio garrantzitsua bildu, aztertu, laburbildu eta egoki kudeatzea.

T3.– Egiten den lanaren helburuei lotutako arazoak konpondu eta erabakiak hartzea.

T4.– Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak efizientziaz erabiltzea.

T5.– Gutxienez atzerriko hizkuntza bat ulertu eta erabiltzea bere lan-jardunean.

T6.– Norberaren jarduera profesionalaren eta pertsona artekoaren autokritika egitea.

T7.– Komunikazio-gaitasunak eta kritika eraikitzailea erabiltzea taldeko lanean.

T8.– Ideiak eta argudioak garatzea, arrazoituz eta kritika eginez.

T9.– Egoki txertatzea diziplina anitzeko taldeetan eta ingurune kultural desberdinetan.

T10.– Lantaldeak gidatu eta kudeatzea.

T11.– Balioespen eta sentsibilitate estetikoan, ingurumenekoan eta aniztasunekoan oinarritutako etika profesionala garatzea lan-praktikan.

T12.– Aldaketa kultural, sozial eta artistikoetara eta lan-eremuan gertatzen diren aurrerapenetara moldatzea lehia-baldintzetan, eta etengabeko prestakuntzaren bide egokiak hautatzea.

T13.– Bikaintasuna eta kalitatea bilatzea jardun profesionalean.

T14.– Ikerketako metodologia menderatzea proiektu, ideia eta soluzio bideragarriak sortzean.

T15.– Era autonomoan lan egitea eta ekimenaren garrantzia eta espiritu ekintzailea baloratzea jardun profesionalean.

T16.– Kultura- eta ingurumen-ondasunarekiko erantzukizunez erabiltzea eskura dituen bitarteko eta baliabideak.

T17.– Bere lan-jardunarekin, kultura bezalako ondarearen garrantziaz, horrek hainbat esparrutan duen eraginaz eta balio esanguratsuak sortzeko duen gaitasunaz sentsibilizatzen laguntzea gizarteari.

IV. ERANSKINA, OTSAILAREN 16KO 23/2016 DEKRETUARENA

KONPETENTZIA OROKORRAK

G1.– Autonomia eta autorregulazioa sustatzea ezagutzaren, emozioen, jarreren eta portaeren esparruan, independentzia adieraziz modu kritiko batean informazioaren bilketan, analisian eta sintesian, ideien eta argudioen garapenean, eta sorkuntza-prozesuetan automotibatzeko eta antolatzeko duen gaitasunean.

G2.– Psikologikoki ulertzea eta enpatizatzea, besteen bizitzak, egoerak eta nortasunak ulertzeko, bere irudikapen- eta intuizio-gaitasunak, baita adimen emozionala eta pentsamendu sortzailea ere modu eraginkor batean erabiliz arazoak konpontzeko; pentsatzeko eta malgutasunez lan egiteko gaitasuna garatuz, besteengana eta lanaren egoera aldakorretara egokituz, baita beraren gorputzaren eta ikuskizunari lotutako baldintza psikologikoak betetzeko behar den orekaren kontzientzia eta erabilera osasungarria garatuz ere.

G3.– Kontzientzia kritikoa sustatzea, beraren eta besteen lanaren ikuspegi eraikitzaile bat izanez, erabiltzen dituen baliabideen eta lortu nahi dituen helburuen artean erlazio egokia ezarriko duen etika profesional bat garatuz.

G4.– Komunikatzea, erakutsiz gaitasun nahikoa duela negoziatzeko eta talde-lana antolatzeko, ingurune kultural desberdinetara egiteko eta teknologia berriak erabiltzeko.

G5.– Espresio eta sorkuntza pertsonala sustatzea, hartutako ezagutza teorikoak, teknikoak eta praktikoak integratuz; zintzotasuna, erantzukizuna eta eskuzabaltasuna erakutsiz prozesu sortzailean; arriskua hartuz, porrota onartuz eta modu orekatuan baloratuz gizartean izaten den arrakasta.

V. ERANSKINA, OTSAILAREN 16KO 23/2016 DEKRETUAREN

INTERPRETAZIOAREN KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

EI1.– Interpretazioa garatzeko behar diren adierazpen-baliabideak menperatzea.

EI2.– Sorkuntzan parte hartu eta partitura edo pertsonaia interpretatzea, interpretazio-teknika desberdinak menperatzearen bidez.

EI3.– Ikuskizunaren zati diren gainerako hizkuntzekin elkar-eragitea.

EI4.– Sormen-prozesu pertsonala ulertzeko eta oinarritzeko ikastea, lan-metodologiari zein berrikuntza estetikoari dagokienez.

VI. ERANSKINA, OTSAILAREN 16KO 23/2016 DEKRETUAREN

ARTE DRAMATIKOKO INTERPRETAZIOAREN ESPEZIALITATEAN TITULUA DUEN PERTSONAREN LANBIDE-PROFILA

Interpretazioaren espezialitatean definitzen den profila artista, sortzaile, interprete eta zeinu-komunikatzaile batena da, zeinek bere burua tresna gisa hartzen baitu, bere adierazpen-baliabideak, gorputza, ahotsa eta ezaguera- eta emozio-baliabideak osatu eta ikuskizunaren zerbitzura jartzeko. Artearen ikuspegi pertsonal bat garatzen du, beste artista batzuenarekin nahasten dena arte-proiektu komun batean parte hartzeko. Profesional hori gai izango da ikerketan eta irakaskuntzan aritzeko.